

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

EKONOMIAREN GARAPEN,
JASANGARRITASUN
ETA INGURUMEN SAILA

DEPARTAMENTO DE DESARROLLO
ECONÓMICO, SOSTENIBILIDAD
Y MEDIO AMBIENTE

BERMEOKO PORTUAREN BARNE LARRIALDIETARAKO PLANA

2. Berrikuspena



2023ko OTSAILA






KONTROL ORRIA

Proiektua DEBA ETA EA PORTUEN BARNE LARRIALDIETARAKO PLANA ETA ITSAS BARNE PLANEN ERREDAKZIOA ETA PLENTZIA, ARMINTZA, BERMEO, MUNDAKA, ELANTXOBE, LEKEITIO, ONDARROA, MUTRIKU, ZUMAIA, GETARIA, ORIO, DONOSTIA-SAN SEBASTIÁN ETA HONDARRIBIAKOEN EGUNERATZEA **Proiektu Zb.:**
14-053

Dokumentoa BERMEOKO PORTUAREN BARNE LARRIALDIETARAKO PLANA
2. Berrikuspena

Expediente Zb. 0295V/2014

Bertsioa	Data	Fitxategi			
1	2017ko ots.	14-053-03_PEI Bermeo a	Deskriba Bermeoko portuko barne larrialdietarako planaren memoria pena 277/2010 Dekretuak ezartzen duen arabera.		
		Prestatuta	Berrikusita	Onartuta	
					
		IZENA Joserra Larisgoitia Team Ingeniería SL. UTE Planes Puertos	Jon Caño Arteta. Team Ingeniería SL. UTE Planes Puertos	Torre Oleaga, Ricardo Team Ingeniería SL. UTE Planes Puertos	
2.	2023ko otsaila	IZENA	Aitor Etxebarria Atutxa		Portu eta Itsas Gaietako zuzendaria

Dokumentu hau Aitor Etxebarria Atutxak sinatuta dago, Eusko Jaurlaritzaren Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Saileko Portu eta Itsas Gaietako zuzendariak, jardueraren ordezkari legala moduan.

Halaber, dokumentu hau Jon Caño jaunak sinatuta dago, auto-babeserako planak garatzeko teknikari gaitua, 2012 Abuztuaren 3ko Agindua eskatzen duen bezala.



Horrez gain, dokumentuak, kontratuan parte hartzen duten TEAM Ingeniería y Consultoría S.L eta Fundación Azti sortutako behin-behineko enpresa elkarteak (UTE PLANES PUERTOS) idatzita daude.



DOKUMENTAZIOAREN KONTROLA

2017ko otsailan, UTE PLANES PUERTOSek (TEAM ETA AZTI) Bermeoko Portuaren Barne Larrialdietarako Plana eguneratzen du. Une honetatik aurrera, hurrengo berrikusketan eginiko aldaketa guztiak ondoko taulan erregistratuta geratuko dira:

BERR.	DATA	ARDURADUNA	EGINIKO ALDAKETAK
0	2007ko maiatza	SENER Ingeniería y Sistemas S.A.	Bermeoko portuaren lehenengo autobabes - larrialdietarako plana.
1	2017ko otsaila	UTE PLANES PUERTOS (TEAM-AZTI)	Bermeoko Portuaren Barne Larrialdietarako Planaren berrikusketa.
2	2023ko otsaila	Portu eta Itsas Gaietako zuzendaria	Planean sartutako datuak eguneratzea

Taula honen bidez indarrean dagoen bertsioa zein den jakingo da, kopia kontrolatuak banatzeko momentuan.

Dokumentu honetan portuaren oinarritzko informazioa, horren jarduera eta babes baliabideen informazioa biltzen da, eta, gutxienez, hurrengo erakundeei banatuko zai:

KOPIA KONTROLATUEN BANAKETA
ERAKUNDEA
Eusko Jaurlaritzaren Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Sailaren Portu eta Itsas Gaietako Zuzendaritza.
Eusko Jaurlaritzaren Segurtasun Sailaren Larrialdiei Aurre Egiteko eta Meteorologiako Zuzendaritza.
Portu eta Itsas Gaietako Bilboko bulegoa.
Portu eta Itsas Gaietako Bermeoko bulegoa.
Bermeoko portuko enpresa emakidadunak.
Suhiltzaileak (Gernika eta Derio).
Bermeoko Udala.
Bilboko Itsas Kapitaintza
Itsas Salbamendua



Gainera, Barneko Larrialdietarako Planari buruzko informazio guztia Eusko Jaurlaritzaren Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Sailari emango zaio formatu digitalean.



SARRERA

Istripuak, naturalak zein gizakiak eragindakok, arazoak sor ditzakete, eta baliteke Bermeoko portuak ezin aurre egitea bere eragin-eremuen eta antolaketa normalean.

Portuak, eremu geografikoa kontuan hartuta, hainbat arriskuri egin beharko dio aurre, baita bertan garatzen diren jardueren arriskugarritasuni ere. Beraz, identifikatutako arriskuei aurrea hartzea onuragarria ikusten da, baita larrialdien aurrean erantzun erraza, azkarra eta eraginkorra eskaintzea ere.

Hori dela eta, Barne Larrialdietarako Planak eskuragarri dauden baliabideak antolatzen ditu, portua eta ondare kolektiboaren osotasuna mantentzeko, arrisku baten ondoriozko larrialdi kasuetan berehalako esku-hartzea bermatuz.

Dokumentu honek 277/2010 Dekretuak ezarritakoarekin bat egiten du, auto-babesaren betebeharrak exijitzen diren jarduera jakin batzuei, zentro edo instalazioetan larrialdi egoerei aurre egiteko, jarduera horien artean, merkataritza-portu dagoelarik.

Horrez gain, Plan hau prestatzeko, Larraildiak Kudeatzeko testu bategina onartzen duen apirilaren 27ko 1/2017 Lege Dekretua hartu da erreferentzia gisa, non 28.3 artikuluan Plan Bereziei buruz hitz egiten duen. Honakoa dio: Plan bereziak arrisku zehatzei aurre egiteko landuko dira, arrisku horien nolakotasunak metodologia tekniko-zientifiko berezia eskatzen duenean, iharduera-arloaren, larrialdi-mataren ekintza zehatzaren arabera. Egon daitezkeen oinarrizko norabideekin bat etorritik landuko dira plan bereziak.

Bestalde, ekainaren 24ko 153/1997 Dekretuak, zeinaren bidez Euskadiko Babes Zibileko Plana onartzen den, bere IIIgarren tituluan, Babes Zibileko Plangintza prozedura ezartzen da.

Babes Zibileko helburuak lortzeko, Plan honek plangintza instrumentu interesgarria bat jotzen da, nagusiki honako alderdi prebentibo eta auto-babeserako jorratzen dituelako:

- a) Portuan eragina izan dezaketen arriskuak identifikatzea eta ebaluatzea.
- b) Prebentzio plana, zeinen arriskuak txikitzeko edo ezabatzeko neurriak ezartzen diren.
- c) Larrialdi Plana, non larrialdi egoera baten aurrean hartu beharreko neurriak eta garatu beharreko jarduerak batzen dituen.
- d) Babes Zibileko goi-planetan integrazioa.
- e) Planari esleitutako pertsonalari eman beharreko informazio, formazio eta ekipamendua.



- f) Planaren Zuzendaritza izendatzea eta babes zibilaren agintariekin harremanak adostea.

Dokumentu honek Eusko Jaurlaritzaren Larrialdiei Aurre Egiteko eta Meteorologiako Zuzendaritzak ezarritakoarekin bat egiten du, larrialdi plan handiagoen integrazioa eta bateragarritasuna bermatuz: Lurralde Planak, Plan Bereziak eta Euskadiko Babes Zibileko larrialdi Plana.

Eusko Jaurlaritzak, koherentziaz, bere egiten ditu koordinazio-, lankidetzaz- eta elkartasun printzipioak, eta haren jarduerari ekingo die, beste agentzia eta erakundeen baliabideak eta bitartekoen osagarritasuna eta subsidiariorotasunarekin bat eginez.

Laburbilduz, Larrialdietarako Planaren **helburu** nagusiak honako hauek dira:

- a) Pertsonen segurtasunean, ondaretan eta ondare kolektibotan arriskuak sor daitezkeen larrialdi egoeren azterketa eta ebaluazioa egitea, elementu zaurgarriak eta arrisku-iturriak identifikatzeko.
- b) Erabiltzailei arriskuei buruzko informazioa ematea horien arriskuak eta babes/prebentzio neurriak jakinaraztea, horien arriskua txikitu edo ezabatzeke, eta nolana ere, portuaren auto-babesa sustatzeko.
- c) Arriskuak gainditzeko eta, ahal den neurrian, portuaren erabiltzaileei, azpiegiturei eta ingurumenari eragiten dieten afekzioa murrizteko larrialdi jarduera prozedura definitzea.
- d) Portuan eskuragarri dauden giza baliabideak eta baliabide materialak kontuan hartuta, dokumentu erabilgarria eta Goi Planen integragarria egitea.
- e) Haren eragin-esparru barruan, larrialdietan esku-hartzeko egitura organikoa konfiguratzeko eta goi mailako zuzentze- eta koordinatze-zentroekin lotura sistemak ezartzea.

Barneko Larrialdi Plan honen aplikazio eremua portuko itsasoko zein lurreko eremua da.



Honakoa da portuetako larrialdiei buruzko oinarritzko araudia:

- Babes Zibileko Sistema Nazionalaren uztaileko 9ko 17/2015 Legea (B.O.E. 10-07-2015).
- Merkantzia Arriskutsuen Manipulatze, Onartze eta Biltegiratzeari dagokion araudi nazionala onartzen duen 145/1989 Errege Dekretua, (B.O.E. 13-02-1989).
- Larrialdiak Kudeatzeko Legearen testu bategina onartzen duen apirilko 27ko 1/2017 Lege Dekretua (B.O.P.V. 05-05-2017).
- Herrizaingo sailburuaren, Larrialdiei Aurre egiteko Euskal Sistemaren taktika operatiboak onartzeko, eta Larrialdietan Koordinatuta Esku hartzeko Zerbitzua sortzeko den 2001eko abuztuaren 1eko Agindua, (B.O.P.V. 13-09-2001).
- Zenbait zentro edo establezimenduren larrialdi-egoerei aurre egiteko autobabes-betebeharrak arautzen dituen azaroaren 2ko 277/2010 Dekretua. (B.O.P.V. 14-12-2010)
- Estatuko Portuen eta Itsas Merkataritzaren Legearen testu bategina onartzen duen 2/2001ko Errege Dekretua, (B.O.E. 20-10-2011).
- Itsas Trafikoaren jarraitze eta informatze sistema ezartzen duen 210/2004 Errege Dekretua, (B.O.E. 14-02-2014).
- Uztailaren 24ko 14/2014 legea, Itsas nabigazioa. (B.O.E. 25-07-2014).
- Errepideetatik Merkantzia Arriskutsuen Garraioaren Erreglementu Nazionala onartzen duen 74/1992 Errege Dekretua, (B.O.E. 22-02-1992). (Araututa)
- Suaren Aurkako Babes Instalazioen araua onartzen duen maiatzaren 22ko 513/2017 Errege Dekretua. (B.O.E. 12-06-2017).
- Larrialdi-egoerak eragin ditzaketen jardueretarako zentro, establezimendu eta bulegoen Autobabeserako Oinarritzko Araua onartzen duen martxoaren 23ko 393/2007 Errege Dekretua. (B.O.E. 24-03-2007).

**BERMEOKO PORTUAREN BARNE LARRIALDIETARAKO PLANA****2. Berrikuspena**

1.	TITULARREN ETA KOKALEKUAREN IDENTIFIKAZIOA.	4
1.1.	KOKAGUNEAREN DATUAK.....	4
1.2.	TITULARREN DATUAK.....	5
1.3.	BARNE LARRIALDIETARAKO PLANAREN ARDURADUNAK.	12
2.	JARDUERAREN ETA INGURU FISIKOAREN DESKRIPZIOA.	15
2.1.	PORTUAREN JARDUEREN DESKRIBAPENA.....	15
2.2.	PORTUAREN ETA HORREN INSTALAZIOEN DESKRIPZIOA.....	17
2.3.	ERABILTZAILIEN SAILKAPENA ETA DESKRIBAPENA.....	20
2.4.	PORTUAREN INGURUAREN DESKRIBAPENA.....	21
2.5.	SARBIDEEN DESKRIBAPENA.....	22
3.	ARRISKUEN INBENTARIOA, ANALISIA ETA IDENTIFIKAZIOA	23
3.1.	ARRISKUA SOR DEZAKETEN ELEMENTUEN DESKRIBAPENA.	24
3.2.	ARRISKUEN IDENTIFIKAZIOA, AZTERKETA ETA EBALUAZIOA.....	26
3.3.	ERAGINDAKO PERTSONAK.....	38
4.	AUTOBABES NEURRIEN ETA BALIABIDEEN INBENTARIOA ETA DESKRIPZIOA.	39
4.1.	GIZA BALIABIDEAK ETA BALIABIDE MATERIALAK.....	39
4.2.	SEGURTASUNARI BURUZKO NEURRIAK.	43
5.	PORTUKO INSTALAZIOAK MANTENTZEKO PROGRAMA.	44
5.1.	ARRISKU-INSTALAZIOEN MANTENTZE-LANAK.....	45
5.2.	BABES-BITARTEKOAK MANTENTZEA.....	47
5.3.	SEGURTASUNEN IKUSKAPENA EGITEA ETA BABES-BITARTEKOAK MANTENTZEA.	



6. LARRIALDIETAN JARDUTEKO PLANA.....	52
6.1. LARRIALDIAK IDENTIFIKATZEA ETA SAILKATZEA.....	53
6.2. LARRIALDIETAN JARDUTEKO PROZEDURA (ERAGINKORTASUNA).....	54
6.3. LARRIALDIETAN JARDUTEKO PROZEDURAK GAUZATUKO DITUZTEN PERTSONEN ETA EKIPOEN IDENTIFIKAZIOA ETA FUNTZIOAK.....	65
6.4. LARRIALDIEN AURREAN JARDUTEKO PLANA ABIAN JARTZEKO ARDURADUNA IDENTIFIKATZEA.....	72
7. AUTOBABESEKO PLANA GOI-MAILAKO BESTE PLAN BATZUETAN INTEGRATZEA.....	73
7.1 LARRIALDIA JAKINARAZTEKO PROTOKOLOAK.....	73
7.2 BABES ZIBILAREKIN KOORDINATZEA.....	74
7.3 BABES ZIBILEKO SISTEMA PUBLIKOAREKIN LANKIDETZAN ARITZEKO MODUAK.....	74
8. BARNE-LARRIALDIETARAKO PLANA EZARTZEA.....	75
8.1. B.L.P.-A EZARTZEKO ARDURADUNA.....	75
8.2. PARTE-HARTZE AKTIBOA DUTEN LANGILEAK PRESTATZEKO ETA GAITZEKO PROGRAMA.....	76
8.3. BARNE LARRIALDIETARAKO PLANEN LANGILE GUZTIEI PRESTAKUNTZA ETA INFORMAZIOA EMATEKO PROGRAMA.....	77
8.4. ERABILTZAILEEI INFORMAZIO OROKORRA EMATEKO PROGRAMA.....	78
8.5. BISITARIENTZAKO JARDUN-ARAUAK.....	79
9. PLANAREN ERAGINKORTASUNA MANTENTZEA ETA EGUNERATZEA.....	80
9.1. PRESTAKUNTZA ETA INFORMAZIOA BIRZIKLATZEKO PROGRAMA.....	80
9.2. BITARTEKOAK ETA BALIABIDEAK ORDEZTEKO PROGRAMA.....	81
9.3. ARIKETEN ETA SIMULAZIOEN PROGRAMA.....	82
9.4. PLANA BERRIKUSTEKO ETA EGUNERATZEKO PROGRAMA.....	83
9.5. AUDITORETZEN ETA IKUSKAPENEN PROGRAMA.....	84

1. GEHIGARRIA. KOMUNIKAZIO DIREKTORIOA.**2. GEHIGARRIA. LARRIALDIAK KUDEATZEKO FORMULARIOAK.****3. GEHIGARRIA. PLANOAK.****1. ERANSKINA. BALIABIDEEN INBENTARIOA.**



1. TITULARREN ETA KOKALEKUAREN IDENTIFIKAZIOA.

1.1. KOKAGUNEAREN DATUAK.


Bermeoko udalerrria, Euskadiko iparraldeko muturrean dago, Bizkaiko Golkoaren ondoan, Busturialdeako eskualdean (**3.Gehigarria Planoa 1**).

Iparraldean Bizkaiko golkoarekin, hegoaldean, Busturia eta Arrietarekin, mendebaldean Bakiorekin, ekialdean Mundakarekin eta hego-mendebaldean Mungia eta Meñakarekin egiten du muga. Herriaren azalera 34 Km² –koa da, eta eskualdean hedadura handieneko bigarren udalerrria da eta biztanle kopururik handiena duena. (**ikus Planoa 1**).

Bermeoko portua Matxitzako lurmuturraren babesean dago, eta horren daturik aipagarrienak hurrengoak dira:

Bermeoko Portua		
Kokagunea	Longitudea	002° 43' W
	Latitudea	43° 25' N
	X Koordenada	522375
	Y Koordenada	4807319
Marearen Gorabehera		4,50 m
Sarrerako kanala	Zabalera	90 m
	EIBBko Sakonera	6 m
	Norabidea	E.N.E

Dokumentu honetan 2012 urtean eginiko portuko batimetria sartu egin da (**3.Gehigarria Planoa 5**).

Portuko bulegoa	<p><i>Izena:</i> Portu eta Itsas Gaietako bulegoa. <i>Helbidea:</i> Kai Bidea, z/g (Bermeo) <i>Posta Kodea:</i> 48370 <i>Jarduera:</i> Portuko administrazio-bulegoa. <i>Telefona:</i> 688 671 019 / 946 88 27 23</p>	
-----------------	-------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------	--------------------------------------------------------------------------------------

1.2. TITULARREN DATUAK.

Portuaren eta Eusko Jaurlaritzarekin lotutako jardueretako titularra hurrengoa da:

TITULUDUNEN DATUAK		
<p>Eusko Jaurlaritzaren Portu eta Itsas Gaietako Zuzendaritza.</p>	<p><i>Izena:</i> Eusko Jaurlaritzako Portu eta Itsas Gaietako Zuzendaritza. <i>Helbidea:</i> Donostia-San Sebastián,1 <i>Posta Kodea:</i> 01010 (Vitoria) <i>Jarduera:</i> Eusko Jaurlaritzako Portu eta Itsas Gaietako Zuzendaritza. <i>Telefonoa:</i> 945 01 97 39</p>	

Bermeoko kirol portua EKP-k gestionatzen du:

<p>E.K.P.</p>	<p><i>Izena:</i> Euskadiko Kirol Portuak <i>Helbidea:</i> Fraile Leku, 1 <i>Posta Kodea:</i> 48370 <i>Jarduera:</i> Kirol Portuaren, eremu teknikoaren eta lehorreratze-gurdien kudeaketa. <i>Telefonoa:</i> 946 88 02 32 / 652 77 64 95</p>	
---------------	------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------	-------------------------------------------------------------------------------------

Portuan emakida-araubidez egiten diren hainbat jardueren titularrak honakoak dira:

KONTZESIOA	TITULUDUNEN DATUAK	
<p>San Pedro arrantzaleen kofradia</p>	<p><i>Izena:</i> Patron Mayor de la Kofradia de pescadores. <i>Helbidea:</i> Muelle Kofradía, z/g <i>Posta Kodea:</i> 48370 <i>Jarduera:</i> Lonja eta egoitza <i>Telefonoa:</i> 946 88 01 08</p>	
<p>Baxurako arrantza ekoizleen Bizkaiko Erakundea</p>	<p><i>Izena:</i> Patron Mayor de la Cofradia de pescadores. <i>Helbidea:</i> Muelle Kofradía, z/g <i>Posta Kodea:</i> 48370 <i>Jarduera:</i> Kaxa eta tina biltegia <i>Telefonoa:</i> 946 88 01 08</p>	
<p>Izotz fabrika</p>	<p><i>Izena:</i> Cofradía San Pedro -Bermeo <i>Helbidea:</i> Martillo, z/g <i>Posta kodea:</i> 48370 <i>Jarduera:</i> Izotz fabrika <i>Telefonoa:</i> 946 88 35 68</p>	
<p>Cruz Roja. Itsas Salbamendu-basea</p>	<p><i>Izena:</i> Gurutz Gorria <i>Helbidea:</i> Matxikorta, z/g <i>Posta kodea:</i> 48370 <i>Jarduera:</i> Itsas Salbamendua <i>Telefonoa:</i> 946 88 35 68</p>	
<p>Sociedad de Salvamento y Seguridad Marítima</p>	<p><i>Izena:</i> Sociedad de Salvamento y Seguridad Marítima <i>Helbidea:</i> Matxikorta, s/n <i>Posta Kodea:</i> 48370 <i>Jarduera:</i> Itsas Salbamendua <i>Telefonoa:</i> 917 55 91 00/ 944 83 94 11</p>	

KONTZESIOA	TITULUDUNEN DATUAK	
<p>Arrantza eta Akuikultura Zuzendaritza</p>	<p><i>Izena:</i> Arrantza eta Akuikultura Zuzendaritza <i>Dirección:</i> Matxikorta, z/g <i>Posta Kodea:</i> 48370 <i>Jarduera:</i> Arrantza Ikuskaritza Bulegoa <i>Telefonoa:</i> 945 01 96 50</p>	
<p>Astilleros de Bermeo, S.A</p>	<p><i>Izena:</i> Astilleros de Bermeo, S.A <i>Helbidea:</i> Erroxape, z/g <i>Posta kodea:</i> 48370 <i>Jarduera:</i> Itsasontzien konponketa eta horniketa <i>Telefonoa:</i> 946 88 09 33</p>	
<p>Repsol Hornidura-estazioa</p>	<p><i>Izena:</i> REPSOL COMERCIAL P.P. S.A. <i>Helbidea:</i> Matxikorta, z/g <i>Posta kodea:</i> 48370 <i>Jarduera:</i> Erregaien hornitzea <i>Telefonoa:</i> 944 35 54 73</p>	
<p>MARBECO S.A</p>	<p><i>Izena:</i> MARBECO S.A <i>Helbidea:</i> Erroxape, z/g <i>Posta kodea:</i> 48370 <i>Jarduera:</i> Zamatzea, deskargatzea, aduanak. <i>Telefonoa:</i> 946 88 46 47</p>	
<p>Bermeo Offshore</p>	<p><i>Izena:</i> Bermeo Offshore <i>Helbidea:</i> Erroxape, z/g <i>Posta kodea:</i> 48370 <i>Jarduera:</i> Zamatzea, deskargatzea, aduanak. <i>Telefonoa:</i> 946 18 60 18</p>	

KONTZESIOA	TITULUDUNEN DATUAK	
E.K.P.	<p><i>Izena:</i> Euskadiko Kirol Portuak <i>Helbidea:</i> Matxikorta, z/g <i>Posta kodea:</i> 48370 <i>Jarduera:</i> Zerbitzu nautikoak <i>Telefonoa:</i> 946 88 02 32 / 652 77 64 95</p>	
Bermeoimega S.A.L. Talleres Navales	<p><i>Izena:</i> Bermeoimega S.A.L. Talleres Navales <i>Helbidea:</i> Artza, s/n <i>Posta kodea:</i> 48370 <i>Jarduera:</i> Itsasontzien konponketa eta horniketa. <i>Telefonoa:</i> 946 88 02 87</p>	
E.K.P.	<p><i>Izena:</i> Lehorreratze-gurdiak <i>Helbidea:</i> Artza, s/n <i>Posta kodea:</i> 48370 <i>Jarduera:</i> Itsasontzien azpien konpontzea eta garbitzea <i>Telefonoa:</i> 946 88 02 32/ 652 77 64 95</p>	
Izozte Planta	<p><i>Izena:</i> Cofradía San Pedro - Bermeo <i>Helbidea:</i> Matxikorta, z/g <i>Posta kodea:</i> 48370 <i>Jarduera:</i> Izozte prozesamendu planta. <i>Telefonoa:</i> 946 88 30 00</p>	
Pesqueras Etxebastar	<p><i>Izena:</i> Pesqueras Etxebastar, S.A. <i>Helbidea:</i> Kai Kalea, Z7G <i>Posta kodea:</i> 48370 <i>Jarduera:</i> Itsasontzien esplotazioa eta komertzializazioa. <i>Telefonoa:</i> 946 18 65 00</p>	
Electricidad IRURAK BAT	<p><i>Izena:</i> Electricidad Irurak Bat, S Coop. <i>Helbidea:</i> Artza, z/g <i>Posta kodea:</i> 48370 <i>Jarduera:</i> Elektrizitate tailerra. <i>Telefonoa:</i> 946 88 03 47</p>	



KONTZESIOA	TITULUDUNEN DATUAK	
MARINOIL SERVICE	<p><i>Izena:</i> MARINOL Service, S.A. <i>Helbidea:</i> Erroxape, z/g <i>Posta kodea:</i> 48370 aitor@marinoil.com <i>Jarduera:</i> Petrolioaren deribatuen biltegitratze- eta hornitze-pabilioia. <i>Telefona:</i> 946 74 50 15</p>	
MARINOIL SERVICE	<p><i>Izena:</i> MANIROL service, S.A. <i>Helbidea:</i> Matxikorta, z/g <i>Posta kodea:</i> 48370 aitor@marinoil.com <i>Jarduera:</i> Olio lubifrikatzailen erauste, biltze eta hornitzea. <i>Telefona:</i> 946 74 50 15</p>	

Enpresa horiez gain, portuan badaude izaera bereziko hainbat enpresa, pribatuak zein publikoak, emakida-araubidean:

IZENA	XEDEA
Barna, S.A.	Ur gazia biltzeko instalazioa
Iberdrola Distribución Eléctrica	Transformadoreak eta lurpeko lineak Kanalizazio elektrikoak
Conservas Cusumano	3 konexio eta ur-zerbitzuak
Telefónica de España, S.A.U.	Kofradientzako kanalizazioa
Conf. Hidrográfica del Cantabrico	Araztutako lurpeko ur kondukzioa
Bizkaiko Foru Aldundia	Saneamendu sarea
Bermeoko Udala	Padura saneamendua
Bermeoko Udala	Egokitzea eta estaltzea
Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoa	Ur eta saneamendu hornikuntza



Azkenik, 2022ko erroldaren arabera, hurrengo emakidadun txikiak daude:

IZENA	XEDEA
Bermeo Seafood S.L.U. (Lonja n°1)	Kontserbak
Royo Gabancho,J.C. y Eusebio,C.B. (Lonja n°2)	Kontserbak
Royo Gabancho,J.C. y Eusebio,C.B. (Lonja n°3)	Kontserbak
Urdaibai Kontserbak (Lonja n°4)	Kontserbak
Urdaibai Kontserbak (Jose Sabin) (Lonja n°5)	Kontserbak
Matxixako Lurmuturra Food, S.L.U. (Lonja n°6)	Arrain eta itsaskien salerosketarako
GOKABI Efectos Navales S.L.U. (Lonja n°7)	Itsas horniketak
CEBERBI,S,L, (Carmelo Toja) (Lonja n°8)	Kontserbak

IZENA		XEDEA
1	Loza Malaxetxebarria, Iban	Arrantza tresnen biltegia
2	Hutsa	
3	Azkaray Oleaga, Fco. Javier.	Arrantza tresnen biltegia
4	Hernández Gabancho, Jesús	Arrantza tresnen biltegia
5	Anduiza Alboniga, Gorka	Arrantza tresnen biltegia
6	Luzurraga Fradua, Jon Ander	Arrantza tresnen biltegia
7	Miguel Zorrozuza, Aritz	Arrantza tresnen biltegia
8	Zulueta Bilbao, José Ramón C.B.	Arrantza tresnen biltegia
9	Martínez Jiménez, Julen	Arrantza tresnen biltegia
10	Otero Ruiz, David	Arrantza tresnen biltegia
11	Hutsa	
12	BPLZ	
13	BPLZ	
14	Cagigas Ispizua, Ignacio	Arrantza tresnen biltegia
15	Zabaleta Muruaga, Gregorio	Arrantza tresnen biltegia
16	Hutsa	
17	Lartitegui Intxausti, Juan Ignacio	Arrantza tresnen biltegia
18	Lartitegui Intxausti, Juan Ignacio	Arrantza tresnen biltegia
19	OLATU 2015, S.L.	Itsas tresnen biltegia
20	HEGALUZE	Itsas materialen biltegia
21	SOCIEDAD IZARO SUB	Itsas materialen biltegia
22	Marcaida Iturraspe, José Angel	Arrantza tresnen biltegia
23	Hutsa	
24	Hutsa	
25	Hutsa	



IZENA		XEDEA
26	Gascón Begoña, José Alberto/López Begoña, Jesús	Arrantza tresnen biltegia
27	Juan Carlos García, Antonio Miguel Suárez, CB	Arrantza tresnen biltegia
28	BAY OF BISCAY SAILING, Gaizka Uriaguereta	Itsas materialen biltegia
29	URDAIBAI KIROLEROAK, Unai Eroa	Itsas materialen biltegia
30	ASOCIACIÓN GALERNA BELAONTZIEN ELKARTEA	Itsas materialen biltegia
31	Hutsa	
32	URDAXI Kirol Kluba	Itsas materialen biltegia
33	Troya Abad, Xabier /Larrauri Unanue, Unai	Arrantza tresnen biltegia
34	Gascón Begoña, José Alberto/López Begoña, Jesús	Arrantza tresnen biltegia
35	EKP	Itsas materialen biltegia
36	Goikoetxea Garate, Ander	Arrantza tresnen biltegia
37	Lecanda Celaya, José Ignacio	Arrantza tresnen biltegia
38	Lecanda Celaya, José Ignacio	Arrantza tresnen biltegia
39	Zabaleta Muruaga, Enrique	Arrantza tresnen biltegia
40	Zabaleta Muruaga, Enrique	Arrantza tresnen biltegia
41	Francisco Ángel Mtnez. Jiménez	Arrantza tresnen biltegia
42	Hutsa	
43	Albonigamayor Calzada, Andrés	Arrantza tresnen biltegia
44	Maguregui Asla, Kepa	Arrantza tresnen biltegia
45	Hutsa	
46	Hutsa	



1.3. BARNE LARRIALDIETARAKO PLANAREN ARDURADUNAK.

Portuaren Barne Larrialdietarako planaren zuzendaria, Eusko Jaurlaritzari dagokion portu autonomikoen zuzendaritza daukan pertsona izango da, portuko jardueretan sor daitezkeen larrialdiak itsas segurtasunean, nabigazioan edo giza bizitzan eragin dezakeelako. Ez badago, Portu eta Itsas Gaietako arduradunak hartuko ditu bere gain figura horren erantzukizunak.

Portuko larrialdi-arduradunaren figura Kaiak Zaintzeko kaboari dagokio, eta bera arduratuko da arriskuak prebenitzera eta kontrolatzera bideratutako jarduerak kudeatzeaz, bai eta larrialdien kudeaketa operatiboaz ere. Larrialdi egoeran ez egotekotan, *Kai-zaina*-a izango da irudi hau hartuko duena.

Harremanetarako edota jakinarazteak egiteko ondoko kontaktuak daude:

FIGURA	Planaren Zuzendaria	Larrialdi Arduraduna
POSTUA	Portu eta Itsas Gaietako zuzendaria.	Kai Zaintzaile-burua
(Ordezkoa)	Portu eta Itsas Gaietako arduraduna.	Kai-zaina
HELBIDEA	Portu eta Itsas Gaietako zuzendaritza (Eusko Jaurlaritza)	Portu eta Itsas Gaietako Bermeoko bulegoa
UDALERRIA	c/ Donostia-San Sebastián 1	Muelle Matxikorta, z/g
POSTA KODEA	Vitoria-Gazteiz	Bermeo
TELEFONOA	01010	48370
FAX	945 019 739	688 67 10 19
emaila	945 01 97 87	-
	portuak@euskadi.eus	puerto-bermeo@euskadi.eus

Barne Larrialdietarako Planaren idaztearen eta ezartzearen ardura Eusko Jaurlaritzaren portu autonomikoen gaineko eskuduntza duen Zuzendaritzak dauka.



Bestalde, nahitaezkoa da enpresa emakidadunek, baimenduek eta zerbitzuak ematen dituztenek larrialdi-planak eta baliabide materialak izatea beren kargura dituzten instalazioetarako, eta portuarekin koordinatzeko beharrezkoak diren prozedurak izatea.

Portuan kokatutako instalazioen kasuan, garatutako jarduerarengatik autobabes-plan bat behar badute, enpresa emakidaduna arduratuko da plan hori egiteaz, eta jardueraren titularrak dagokion erregistrora bidali beharko ditu Autobabeserako Oinarrizko Arauaren IV. eranskinean aurreikusitako datuak.

Portuko Agintaritzak, aurrez hitzarmena edo lankidetzakonpromisoa hartuta, portuko enpresa emakidadun, baimendu eta/edo zerbitzu-emaitako langile eta bitartekoengana jo ahal izango du Barruko Larrialdietarako Plana betetzeko, baldin eta enpresa horiek zuzenean inplikaturik ez badaude.

Emakidadun horietatik, beren jardueraren, azaleraren, erregai-biltegiaren, erabilitako materialen eta abarren arabera, honakoak izan behar dute autobabes-plana, 277/2010 Dekretuan oinarrituta:

- REPSOL COMERCIAL P.P.S.A
- Hozkailu planta prozesatzailea.
- MARBECO.
- BERMEO OFFSHORE.
- EKP.
- MARINOIL. Biltegi eta petroleoaren deribatuak horniketa pabiloia.
- Izozt lantegia.



Portuaren Barne Larrialdietarako Plana eta emakidadunen autobabeserako planak koordinatzeko, honako alderdi hauek hartuko dira kontuan:

- Planen arteko osagarritasuna egon behar da, eta emakidadunaren larrialdi-arduradunak informazioa eta baliabideak eman behar dizkio Portuko Barne Larrialdietarako Planaren larrialdi-arduradunari.
- Planen arteko koordinazioa zuzenean egingo da planen arduradunen artean, eta bilerak ezarriko dira gutxienez urtean behin.
- Emakidadun bakoitza bere eragin-eremuko jarduketaren arduraduna da.
- Instalazioetan larrialdiren bat egonez gero, emakidadunaren Larrialdietako arduradunak Portu Agintaritzari jakinaraziko dio, eta laguntza eta/edo laguntza eskatuko dio, beharrezkoa izanez gero.
- Gainera, emakidadunaren arduradunak berehala geldiaraziko du bere jarduera, eragindako eremuta hustuz, bere autobabes-planak hala agintzen duenean.
- Portuko larrialdi-egoeran, emakidadunak portuko larrialdi-arduradunarekin koordinatuko dira, egoera hori gainditzeko behar dituzten bitartekoak eta baliabideak haien eskura jartzeko.



2. JARDUERAREN ETA INGURU FISIKOAREN DESKRIPZIOA.

2.1. PORTUAREN JARDUEREN DESKRIBAPENA.

Barneko Larrialdi Plan honen jarduera-eremua Bermeoko portuko zerbitzugunea da, zeina argi eta garbi berezitateko 3 zonaz osatuta dagoen **(3.Gehigarria Planoa 6)**:

- 1. Zonaldea. Portu zaharra (kirol jarduera).
- 2. Zonaldea. Artza (arrantza jarduera).
- 3. Zonaldea. Kanpoko portua (merkataritza jarduera).

1. Zonaldea. Portu zaharra (kirol jarduera).

Jatorrizko portua, **Portu Zaharra** izenaz ezagutzen dena, 1.8 Hako azalera duen gune poligonal da, H-ra irekita eta ixte-kaiaren bitartez itxita dagoena, zonalde malkor batean. Itsasbehera dagoenean 1-2 metroko sakonerak daude. Kirol erabilpena dauka, eta E.K.P enpresak kudeatzen du **(ikus Planoa 6)**.



2. Zonaldea. Artza (arrantza jarduera).

Artza, Portu Zaharraren ondoan, baxurako flota ugariaren ainguratze-gunea da, 3 eta 4 metro arteko sakonerak ditu. Iparraldean, Kofradiaren kaiarekin egiten du muga Artzak, eta mendebaldean, berriz, ontzi-orgekin **(ikus Planoa 6)**.





3. Zonaldea. Kanpoko portua (merkataritza jarduera).

Kanpoko Portua, EIEra zuzendutako olatu-horma dike batez osatua, 766 metroko luzera eta 20 metro inguruko sakoneretara iristen dena. Olatu-horma dikearekiko perpendikularrean, eta izotz-fabrikatik 100 bat metrora, Martillo izeneko 65 metroko luzera duen kai-mutur bat abiatzen da (ikus 6. plano).

Bermeoko portua kontradike batek ixten du. Kontradike hori Lamiaranetik (Mundakako udalerria) ipar-mendebaldera doa, 250 metroko luzerarekin. Portura sartzeko bokalea MHMra begira dago, eta 90 metroko zabalera du.

Aurreportuaren hegoaldean, Erroxapeko kaia zabaltzen da, arrantza- eta merkataritza-erabilerarako atrakaleku gisa mugatuta, 6 metroko sakonera maximoarekin.

Eremu horretan garatzen da merkataritza-jarduera, eta honako hauek dira gaur egun trafikorik esanguratsuenak:

- Material siderurgikoa (bobinak eta palankilak), egurra palletetan eta paper-orea inportatzea.
- Eskaiolazko plakak, sulfatoak eta soda kaustikoa eta potasa esportatzea.

Portuak mugitzen dituen trafikoen zabalera Erroxape kaian egiten dira, garabi mugikorren bidez.

Trenbide-sarea bide estukoa da, eta gaur egun aktibo dago.



Emakidak

Portuan, deskribatutako jardueraz gain, aurreko kapituluaren identifikatutako emakidadunek ere garatzen dute beren lana.

2.2. PORTUAREN ETA HORREN INSTALAZIOEN DESKRIPZIOA

2.2.1. PORTUAREN DESKRIPZIOA.

Bermeoko Itsas Portuaren elementuen ezaugarriak ondoren definitzen direnak dira (**3.Gehigarria Planoa 3**):

Merkataritza eta arrantza portua	Luzera (m.)	Sakonera (m.)	Zabalera (m)	Erabilgarritasuna
Martillo kai muturra	80,00	5,00	10,00	Arrantza
Izotz fabrikaren kaia	220,00	5,00	30,00	Arrantza
Farol verde kaia	60,00	5,00	12,00	Arrantza
Portu Zaharra	-	1,00	-	Kirola
Kofradía kaia	110,00	3,00	12,00	Arrantza
Matxikorta kaia	307,00	5,00	40,00	Arrantza
Erroxape kaia	520,00	6,00	100,00	Merkataritza/ Arrantza
Xixili kaia	140,00	6,00	22,00	Merkataritza



Aurreko orrialdean deskribatutako portuko zonak hurrengo irudian islatuta geratzen dira:



	Luzera (m.)	Sakonera (m.)	Zabalera (m)	TM	Malda(%)	Iruzkinak
Babes dikea Olatu horma	770,00	-	-	-	-	- Kanpoko harri-lubeta ezponda 55 y 85 Tm blokeekin -Hormigoizko Espaldoia
Babes dikea kontradikoa	250,00	-	-	-	-	- Kanpoko harri-lubeta ezponda 8 Tm blokeekin - Hormigoizko Espaldoia
Ontziola pribatuak	70,00	-1,50	7,50	125	8%	-
Lehorreratze-orgak (ARTZA)	88,00	-1,50	7,16	120	9	-
1.104	88,00	-1,50	7,16	120	9	-
1.105	88,00	-1,50	7,16	120	9	-
1.106	88,00	-1,50	7,05	120	9	-
1.107	88,00	-1,50	7,50	240	9	-
1.108	88,00	-1,50	7,82	240	9	-



2.2.2. PORTUAREN INSTALAZIOEN DESKRIBAPENA

Ondoren, portuak dituen instalazioen zerrenda erakusten da:

	Kokapena	kolorea	Ezaugarriak	Helmena (miliak)
Itsasargi eta balizak	Olatu-horma dikea	Berdea	4,5 segunduko distira	4
	Kontradikea	Gorria	3 segunduko distira	3
	Martillo Kai-muturra	Berdea	Finkoa	3
	Farol Berde Kaia	Berdea	Finkoa	3
	Matxikorta Kaia	Gorria	Finkoa	3

	Material mota	Jabea	Zb.	Energia	Behaketak
Zamalanetarako baliabide laguntzaileak	Uhal garraiatzailea	Izotz fabrika	1	Elektrikoa	Izotz-siloa ontziarekin konektatzen du
	Baskulak	Portua	3	Elektrikoa	60 Tm eta 40 Tm
	Orga jasotzaileak	Emakidadunak	7		40 Tm - 3 Tm
	Garabi finkoak	Portua	3		12 Tm
	Garabi mugikorak	Emakidadunak	Beharren arabera		

Ontzien horniketarako instalazio finkoak	INSTALAZIOA	HORNITZAILEA
	Gasolio hartuneak	REPSOL ETA E.K.P.
	Ur edangarriaren hartuneak	UDAL ZERBITZUA
	Ur gaziaren hartuneak	
Elektrizitatearen hartuneak	IBERDROLA	

Ontzien horniketarako instalazio mugikorak	INSTALAZIOA	KOKAPENA	HORNITZAILEA
	Gasolioa	Matxikorta Kaia	HAINBAT
	Gasolioa	Erroxape Kaia	-
Erabilitako olio bilketa	Matxikorta Kaia	MARINOIL, BIDEZAIN ETA BESTE BATZUK	

Portuko beste zerbitzu batzuk	INSTALAZIOA	KOKAPENA	HORNITZAILEA
	Baratoki orgak	Matxikorta Kaia	E.K.P.
	Arrantzaleen lonja	Kofradiako Eraikina	ARRANTZALEEN KOFRADIA
	Izotz Fabrika	Izotz Fabrika Kaia	ARRANTZALEEN KOFRADIA
	Ontziola	Matxikorta Kaia	ASTILLEROS DE BERMEO S.L.
Biltegia	Erroxape Kaia	E.J. PORTUAK	



2.3. ERABILTZAILIEN SAILKAPENA ETA DESKRIBAPENA.

Portuan sartzen diren pertsonak hurrengo taldeetan sailkatzen dira:

- **Erabiltzaileak.** Zentroan sartzen diren ia pertsona guztiak lehen aipatutako edozein jardueratan (kirola, arrantza eta merkataritza) parte hartzen duten ohiko erabiltzaileak dira.
- **Mantentze-lanak.** Instalazioetako mantentze-lanak, garbiketa eta abar egiteko portura sartzen diren langileak.
- **Bisitariak.** Zentroan noizean behin sartzen diren pertsonak.

Bertako eta kanpoko okupatzaileen kopurua aldatu egin daiteke lan-egutegiaren, herriko jaiegunen, okupazio-dentsitatearen, mantentze-lanen, bisiten eta abarren arabera.

Portuaren eremuaren eta dagozkion jardueren arabera, honako erabiltzaile hauek bereizten dira:

1. Kirol-jarduera **Portu Zaharra** kaian eta buietan ainguratzeko eremuan egiten da, El Martillo Espigoiaren ekialdeko aldearen ondoan, eta honako erabiltzaile hauek ditu:

PORTUA	KIROL ONTZI KOPURUA	
	Buia lotuneak	Pantalan lotuneak
Bermeo	35	320

Kontuan izan behar da zona horretan zaindariaren jaia ospatzen dela, erabiltzaileen gorakada nabarmenarekin eta, ondorioz, arrisku-egoeraren igoerarekin. Kasu horretan, ekitaldiaren arduraduna jarduera horren titularra izango da.

2. Arrantza-jarduera **Artzan** egiten da, eta baxurako arrantza baino ez du. Arrantzaren ezaugarriak honako hauek dira:

PORTUA	ARRANTZA ONTZI KOPURUA
Bermeo	28

2.4. PORTUAREN INGURUAREN DESKRIBAPENA

Portuaren kokagunea hiritar-industrializat hartzen da, portuko jardueretarako instalazioak kokatzeaz gain, Bermeoko alde zaharrean dagoelako. Lurraren topografia ez da gorabeheratsua, eta, beraz, hori ez da garrantzitsutzat jotzen sua itzaltzeko zerbitzu publikoetako edo beste baliabide batzuetako ibilgailuen mugikortasunari dagokionez.

Gertuen dagoen Suhiltzaileen Parkea Gernikan dago, gutxi gorabehera 14 km-ra, eta larrialdia izan den lekuan gehienez ere 30 minutuz esku hartu ahal izango da, abisua jasotzen dutenetik zenbatzen hasita.

Ondoren, portuko zonaldearen datu klimatologikoak ikus daitezke:

Parametroa	Deskribapena
Klima	Ozeanikoa, epel eta hezea
Haizeak	Mendebaleko haize nagusiak. 60-85 km/h enbatak
Temperatura	Batez besteko, tenp. minimoak $\approx 8^{\circ}\text{C}$; tenp. maximoak $\approx 20^{\circ}\text{C}$
Izozteak	< 20 egun / urte.
Uholde euriak	Noizbehinkako fenomenoak.
Elurra	Fenomeno arraroa itsaso mailan eta kostaldean.
Txingorra	5 egun / urte.
Mareak	Marea-Karrera: 4,50 m.

Portuaren gertutasunetan hurrengo elementu bereziak kokatzen dira:

Elementu bereziak eta hurbileko interes-zonak
Urdaibai Erreserba
San Juan de Gaztelugatxe
Aritzatxu hondartza
Arribolas hondartza
Izaro uhartea
Ertzilla Dorrea - Arrantzaleen Museoa



2.5. SARBIDEEN DESKRIBAPENA.


Portuko sarbide nagusiak hurrengoak dira(**3.Gehigarria Planoa 8**):

Sarbideak		BBTI (BFA 2013)
Errepidez	BI-631. Mungiatik	5.306 (6,7% astunak)
	BI-635. Gernikatik	7.593 (6,9% astunak)
Itsasoz	-	-
Helikopteroz	-	-
Trenez	Euskotren Bilbao-Bermeo	-

Portuak bide-sare bat du, gutxi gorabehera 2 kilometrokoa. Horietatik, porturako sarbideak asfaltozko zorukoak dira, eta kai, zabalgunek, merkataritza-gunek eta zerbitzu-gunek guztietara sartzeko bideak, berriz, hormigoizkoak. Gainera, zirkulatzeko hainbat bide txikiago daude, leku horietara sartzeko eta barne-maniobra egitea errazten dutenak. Portuak lau sarbide ditu gaur egun:

Sarbidea	Kokapena	
1.Sarbidea (S1)	Alde zaharretik kiroletako zonarako sarbidea.	
2. Sarbidea (S2)	Lehorreratze eremuaren hurbil dagoen biribilgunetik sarrera nagusia.	
3. Sarbidea (S3)	Merkataritza portuaren sarrera nagusia.	



<p>4. Sarbidea (S4)</p>	<p>Portuaren barruan, arrantza eta merkataritza zonaldeen arteko kontrol sarrera.</p>	
--------------------------------	---------------------------------------------------------------------------------------	-------------------------------------------------------------------------------------

Bestalde, portuak barnealdeko trenbide-sare bat du, Erroxapeko kaira iristen dena Matxikorta kaiaren bidez, Bermeo-Bilbo linearekin lotuz.

3. ARRISKUEN INBENTARIOA, ANALISIA ETA IDENTIFIKAZIOA

Arriskuak identifikatzea aztertutako eremuan izan daitezkeen eraginei dagozkien arrisku-indizeak zehaztearen emaitza da.

Horrela, probabilitate- eta ondorio-aldagaiak arrisku fokuko bakoitzak portuarentzat duen arriskua definitzen dute.

Beraz, arrisku-analisirako aurreko pauso bezala, hurrengo kontzeptuak kontuan hartu behar dira:

- **Elementu kalteberak.** Ezaugarri funtzionalak direla-eta istripu batek pertsoneri, ondasun kultureleri zein materialei, edo ingurumenari kalte garrantzitsuak eragin diezazkiekeen instalazioak, zerbitzuak edo eremuak dira.
- **Arrisku-fokuak:** Beren ezaugarriengatik, gainontzekoak baino arriskutsuagoak diren fenomeno, eremu, elementu, instalazio edo udal zerbitzuak.
- **Arriskuen identifikazioa:** Portuari eragiten dioten arriskuak identifikatzeko, informazio historikoa eta arriskuaren produkzioan esku hartzen duten aldagaien iragarpenak erabili ahal izango dira.
- **Arriskuen analisia:** Erabilitako metodologiak identifikatutako arriskuak gertatzeko probabilitatea eta horien ondorioak baloratzen ditu.



3.1. ARRISKUA SOR DEZAKETEN ELEMENTUEN DESKRIBAPENA.

Arrisku-fokuetan izaten da istripu-probabilitate handiena, berezko ezaugarriengatik edo horietan garatzen diren jarduerengatik (**3.Gehigarria Planoa 9**).

Arrisku-fokuek egoera jakin batzuk sortzeko probabilitate berezia dute, eta, horien bilakaeraren arabera, ondorio larriak eragin ditzakete pertsonengan, ondasun materialetan eta ingurumenean.

Horiek hiru taldeetan bana daitezke haien sorburua dela eta:

- Arrisku foku naturalak.
- Arrisku foku teknologikoak.
- Arrisku foku sozialak.

Arrisku foku naturalak.

Arrisku foku naturalak portua kokatuta dagoen lekuaren ezaugarri geologiko eta klimatikoetan jatorria dutenak dira, hala nola:

- Meteorologikoak:
 - Uholde-urriak
 - Mareak.
 - Ekaitzak eta haizeteak.
 - Izozteak eta Elurteak.
- Geologikoak:
 - Mendi-mazelak eta ezponda ezegonkorak, irristatzeak edo luiziak eragin ditzaketenak.
 - Lur-hondoratzeak.
 - Lurrikarak.



Arrisku foku teknologikoak.

Arrisku foku teknologikoak portuko instalazioetan egiten diren jarduera teknologikoen ondoriozkoak dira.

- Hidrokarburoen manipulazioa, biltegitzea eta garraioa:
Erregai arriskutsuak edo toxikoak biltegitzen eta tratatzen dituzten instalazioak, istripurik izanez gero arriskutsuak izan daitezkeenak (sutea, leherketa, ihes toxikoa, isurpena): REPSOL Comercial-en eta E.K.P.-ren erregai biltegiak lehorreratze-eremuan (Erroxape kaian) eta MARINOIL-en olio biltegia (Erroxape kaian).
- “Astilleros de Bermeo, S.L.”(Zuntz su-hartzea) eta lotutako ontziak.
- Hozkailuak.
- Porturatze- eta ainguratze-lanak.
- Salgaien garraio- eta manipulazio-lanak.
- Lantegian eta kanpoan egindako lan mekanikoak.
- Kaietan (lehorreratze eremuan) itsasontzi konponketak.
- Azpiestazioen mantentze-lanak eta motorretako lanak eragingailu elektrikoko ekipoetan.

Arrisku foku sozialak.

Arrisku-foku sozialak giza kontzentrazio handiei (herriko jaiak, etab.) eta gizabanako edo talde batzuen jokabide antisozialari (sabotajeak, mehatxuak, etab) lotutakoak dira.

Foku horiek egoera arriskutsuak eragin ditzakete portuko erabiltzaileentzat.



3.2. ARRISKUEN IDENTIFIKAZIOA, AZTERKETA ETA EBALUAZIOA.

Portu honetan, instalazioei eta zerbitzuei eragiten dieten honako arrisku hauek identifikatu dira:

JATORRIA	ARRISKU FOKUA	ARRISKUA
KANPOKOA	Naturalak	Uholde-euriak
		Mareak
		Ekaitz/haizetea
		Izozteak eta elurteak
		Lur-hondoratzeak
		Lur jauzi
	Lurrikarak	
	Sozialak	Bonba mehatxua / bidegabe sartzea / sabotajea
BARNEKOA	Hidrokarburoen biltegitratze, manipulazio eta garraioa	Sutea / leherketa
		Gasolio-isuria
		Airerako gasolio isuria
		Trafico istripua
		Ihesagatiko irristaketa edo erorketa
	Portuaren berezko jarduera (karga eta deskarga, biltegitratzea, kontaktua, kirol portua, etab.)	Zama erortzea
		Uretara erortzea
		Eraikinetan eta biltegitan sutea
		Substantziekiko kontaktua. Sulfato sodikoa
		Substantziekiko kontaktua. Sosa kaustikoa
		Substantziekiko kontaktua. Potasa
		Itsasontzietan sutea
		Harrapatzeak
	Portuko uretako jarduera	Itsasontzien talkak eta hondoratzeak
		Hauturagatiko gasolio isuriak
		Itsasorako lurretiko isuriak kolektoreetako ihesegatik
	Beste batzuk	Itsasontzia nora ezean
		Tentsio elektrikoaren moztea
		Ur-horniduraren moztea
		Egiturazkoak
Sarbideak		
Ingurumenekoa		



3.2.1. PORTUAREN KANPOALDEKO ARRISKUEN ANALISIA ETA EBALUAZIOA

NATURA ARRISKUAK

- Meteorologikoak (Uholde euriak, tenporalak, mareak, izozteak, etab.):

Euskal Meteorologia Agentziak beti kontuan hartu ditu bere oinarrizko misio bat bezala herritarren eta ondareetarako zainketa eta babeserako fenomeno meteorologikoen aurrean.

Arrisku potentzial horren arabera, oinarrizko lau maila agertzen dira, hurrengo taulan laburbuldua:

MAILA BERDEA

Ez dago meteorologia-arriskurik.

MAILA HORIA

Orokorrean herritarrentzat ez dago meteorologia-arriskurik, baina bai jardueraren baterako (ohiko meteorologia-fenomenoak, baina arriskutsuak izan daitezkeenak).

Urtean batzuetan gerta daitezke. Horrenbestez, abisu-maila da, ez alerta.

MAILA LARANJA

Meteorologia-arrisku handia dago.

Maila laranjako egoera hauek oso gutxitan gertatzen dira urtean, normalean behin. Kalteak, bereziki sektore batzuetakoak, hasten dira handiak izaten eta pertsonen osotasun fisikoa arriskuan ipintzen da. Alerta-egoera eragiten du.

MAILA GORRIA

Meteorologia-arriskua muturrekoa da (ezohiko meteorologia-fenomenoak, ohiz kanpoko intentsitatea dutenak).

Egoera hauek hainbat urtetan behin gertatzen dira, eta herritarrentzat arrisku nabarmena eragiten dute. Kalte materialak oso handiak izan daitezke edo biztanleriaren zati baten osotasun fisikoa arriskuan jar dezakete. Alarma-egoera eragiten du.

Protokoloaren arabera, abisu espezifikoak sortzen dira maila “horia, “laranja” edo “gorria” heltzea aurreikusten denean.



EURI ATALASEAK

Eremua	Mota	Prezipitazioa 24 ordutan (l/m ²)			Prezipitazioa ordubeteetan (l/m ²)		
	Maila	Horia	Laranja	Gorria	Horia	Laranja	Gorria
Autonomi erk.		(60-80)	(80-120)	≥120	(15-30)	(30-60)	≥60

DENBORALE ATALASEAK

Horia	Laranja	Gorria
Itsaso zakarra edo kostaldean olatuaren altuera esanguratsua 3,5 eta 5 metro artekoa.	Itsaso oso zakarra edo kostaldean olatuaren altuera esanguratsua 5 eta 7 metro artekoa.	Itsaso handia edo kostaldean olatuaren altuera esanguratsua 7 metrotik gorakoa

Nabigatzaile ez-profesional asko edo hondartzetan presentzia handia espero den garai edo egoeretan, bereziki udan, olatu handien altuera-atalaseak metro eta erdi murriztuko dira.

HAIZE ATALASEAK

Eremua	Mota Maila	Gehieneko haizekada (km/h)		
		Horia	Laranja	Gorria
Eraginpeko aldea		(100-120)	(120-140)	≥ 140
Eraginpean ez dagoen aldea		(80-100)	(100-120)	≥ 120

ELUR ATALASEAK

Garaierak	Horia	Laranja	Gorria
0-300	Lurreko elur-malutak, 1 l/m ² -raino	(1-5) l / m ²	≥ 5l / m ²
300-700	Lurreko elur-malutak, 1 l/m ² -raino	(5-20) l / m ²	≥ 20l / m ²
700-1000	Lurreko elur-malutak, 1 l/m ² -raino	(10-30) l / m ²	≥ 30l / m ²

ENBATA ATALASEAK

MAILA	EZAUGARRIAK
HORIA	Itsasoan: haizea bat-batean aldatzea, indartu eta noranzkoa aldatuta, gehienetan ipar-mendebaldera eta 6ko indarrarekin.
	Lehorrean: haizea bat-batean aldatzea, normalean ipar-mendebaldera, bat-batean bolada zakarrekin areagotuta, kostaldean 60 km/h-tik gorakoak izanda.
LARANJA	Itsasoan: haizea bat-batean aldatzea, indartu eta noranzkoa aldatuta, gehienetan ipar-mendebaldera eta 7ko indarrarekin.
	Lehorrean: haizea bat-batean aldatzea, normalean ipar-mendebaldera, bat-batean bolada oso zakarrekin areagotuta, kostaldean 90 km/h-tik gorakoak izanda.



GORRIA	Itsasoan: haizea bat-batean aldatzea, indartu eta noranzkoa aldatuta, gehienetan ipar-mendebaldera eta 8ko indarrarekin.
	Lehorrean: haizea bat-batean aldatzea, normalean ipar-mendebaldera, bat-batean bolada bortitzekin areagotuta, kostaldean 120 km/h-tik gorakoak izanda.

Fenomeno meteorologikoengatiko arriskuak hurrengoak dira:

ARRISKUA	ONDORIOAK
Uholde euriak	Portuarentzat arrisku handienak hauek izango dira: uholdeak, instalazio elektrikoak, komunikazio-bideetako mozketak, salgaien galera handiak, biltegiak, garabiak, instalazioak hondatzea, portuko jarduera geldiaraztea, etab.
Mareak	Fenomeno horrek dakarren arriskurik handiena portuko egiturari, instalazioei eta itsasontziei eragin diezaiekeen kaltea da.
Ekaitz/haizetea	Efektu nagusia abordatzeak dira. Porturatutako ontzietan agertzen dira, eta kalteak eragin diezazkiekete horiei edo kaiei. Haize zakarrek ere kalteak eragin ditzakete garabietan.
Izozteak eta elurteak	Arrisku nagusia portuko berezko jardueretan dago, eta horrek langileen erorketak, istripuak eta abar eragin ditzake.

- Geologikoak:

Honako hauek dira fenomeno geologikoen ondoriozko arriskuak:

ARRISKUA	ONDORIOAK
Lur-hondoratzea	Arrisku mota horrek portuko komunikazio-bideei, instalazioei eta erabiltzaileei eragin diezaieke.
Ezpondak erortzea eta mendi-mazelak irristatzea	Batez ere, euri-jasa handiak daudenean, ezpondak eta mendi-mazelak eror daitezke, eta horrek kalteak eragin diezazkieke portuaren egiturari eta instalazioei.

- Lurrikarak:

Arrisku sismikoari dagokionez, aipatzekoa da udalerrria ez dagoela arriskugarritasun sismikotzat katalogatuta (ezin dira aurreikusi VII. intentsitateko edo gehiagoko lurrikarak 500 urteko errepikatze-denborarako).



ARRISKUA	ONDORIOAK
Lurrikarak	Bermeoko portuan gerta daitekeen intentsitate sismikoak kalte ertainak eragingo ditu A motako instalazioetan (lehorreko harlangaitzezko hormak, buztinezkoak eta adobeak) eta kalte arinak B motako instalazioetan (adreiluzko fabrika-hormak).

ARRISKU SOZIALAK

Arrisku mota horiek lotuta daude giza kontzentrazio handiekin (herriko jaiak, etab.) eta gizabanako edo talde batzuen jokabide antisozialarekin (sabotajeak, mehatxuak, etab.).

Atal honetan sartzan dira portuaz kanpoko gizarte- edo industria-jardueretatik eratorritako arriskuak.

- Ibilgailuen inpaktua.
- Zirkulazio-istripuak.
- Alboko instalazioetako istripuen eragina.

Halaber talde honetan kontuan hartzen dira nahita egindako ekintzek eragindako arriskuak:

- Istiluak.
- Matxinadak.
- Sabotaje ekitaldiak, bonba-mehatxua.
- Lapurreak eta portuko eraikinetan bidegabe-sartzeak.
- Delitu-egintzak portu eremuan.
- Herritarrei irekitako kaietan herritarrak egotearen ondoriozko arriskuak.



3.2.2. PORTUAREN BARRUALDEKO ARRISKUEN ANALISIA ETA EBALUAZIOA

HIDROKARBURUOK MANIPULATZEA, BILTEGIRATZEA ETA GARRAIATZEA

Hidrokarburoak manipulatzearen, biltegiratzearen eta garraiatzearen ondoriozko arriskuak taula honetan ageri dira:

KOKAGUNEA	JARDUERA	ARRISKUA
REPSOL KOMERTZIAL gordailuak (Erroxape kaia) eta E.K.P. gordailuak (Matxikorta kaia)	Biltegiratzea	Sutea edo leherketa.
		Isuriak erregai-sutearekin edo gabe.
		Depositua haustea.
	Itsasontzien horniketa edo zisternen karga eta deskarga	Karga-eragiketan mahukak edo hodiak haustea.
		Zisterna-kamioiaren depositua haustea deskarga-eragiketan.
	Hidrokarburuen garraioa	Portuaren barruan trafiko-istripu bat gerta daiteke, mota horretako instalazioak hornitzeko zisterna-kamioi bat tartean dela.
MARINOIL olio biltegia (Erroxape kaia) eta MARINOIL hornigailua (Matxikorta kaia)	Biltegiratzea eta karga edo deskarga	Olio-isuri batek sortutako irristatzea
		Sutea
		Isuriak biltegian edo hornidura-hodian.
Arraina prozesatzeko hozkailu-fabrika Matxikorta kaian eta zatikatutako izotz-fabrika eta izozte-ganberak Izotz fabrikako kaian	Hozkailuak	Amoniakoa erabiliz gero, arrisku toxikoak ditu, eta zenbait baldintzatan, sukoia da.
		Produktuaren isuria balbuletan huts egiteagatik.



Osasunari dagokionez, hauek dira gasolioari lotutako arriskuak manipulatzekoan:

ARRISKUA	ONDORIOA
UKIPENA	Begiekin eta azalarekin kontaktua gertatzen bada , azalaren lehortzea eta pitzatzea ekar lezake, honen eragin koipegabetzailea dela eta. Babak ere atera daitezke. Begietan lesio txikiak sortzen ditu, gehienetan.
ARNASTEA	Konzentrazio luzeetan arnasten bada , buruko mina, bertigo arinak eta begien, sudurraren eta biriken narritadura sor ditzake. Hala ere, kontzentrazio hauek ez dira ohikoak aire zabalean, isuritutako produktuaren inguruan izan ezik.
IRENSTEA	Irensten bada , goragalea, gorakoak, kalanbreak eta nerbio-sistema zentralaren depresioa eragin ditzake, eta, horien ondorioz, buruko mina, anestesia, koma eta heriotza. Gorageleen bitartean egindako arnasketak eztula, hitzegiteko edo arnasteko zailtasuna, bularezur azpiko eragozpenak, garapen azkarreko biriketako edema, bronkopneumonia eta atzeratutako pneumonitisa eragin ditzake, ondorio larriak izanik.



PORTUAREN BEREZKO JARDUERAK

Portuko instalazioetan egiten diren jarduerak honako arrisku-egoera hauek eragiten dituzte:

KOKAPENA	JARDUERA	ARRISKUA
Xixili eta Erroxape Kaiak	Zamalanak	Zama garabi batetik erortzea.
		Zama manipulatzeko ari den pertsona uretara erortzea.
		Zama manipulatzeko ari den pertsonak pairatu ditzakeen zenbait kalte.
	Biltegiatzea	Erroxapeko kaietan dauden eraikuntzen eta biltegien suteak.
	Sustantzien manipulazioa (Sodio sulfatoa, soda kaustikoa eta potasa erregarrria)	Erresumina, indigestioa, etab. sortzen dituen substantziarekiko kontaktua.
Matxikorta Kaia	Arrantza jarduerak, lehorreralekua eta konponketa txikiak egiteko ontziola.	Uretara erortzea.
		Zama erortzea.
		Orga jasotzaileak erabiltzearen ondoriozko arriskuak (talka, iraulketa, sutea, etab.).
		Harrapatzeak.
		Kaietan itsasontziak konpontzean sutea sortzea.
		E.K.P. eta biltegien horniduraren ondoriozko arriskuak.
		Trabelift erabiltzeak sortzen dituen arriskuak.
Kirol gunea	Kirol jarduerak	Uretara erortzea
		Atrakaturako itsasontziak su hartzea, hirigunea hurbil dagoelako.

**JARDUERAK PORTUAREN URETAN**

Hauek dira itsasontzien mugimenduari, atrakatzeari eta ainguratzeari dagokionez gerta daitezkeen istripu nagusiak:

KOKAPENA	JARDUERA	ARRISKUA
Portuko urak	Itsas jarduerak (mugitzea, ainguratzea eta atrakatzea)	Ontzien edo itsasontzi baten eta lurreko instalazioren baten arteko talka.
		Sakonera faltagatik itsasontzia hondatzea.
		Ontzien hondoratzea portuaren barnealdean.
		Ihesak itsasontzietako erregaia biltegitratzean (sutea, leherketa, hodei toxikoa edo itsas kutsadura eragin dezake).
		Pertsonak uretara jaustea.
		Itsasontzi barruko kargaren lerradura.
		Sokak haustea.
		Sutea itsasontzian.
Itsasontzia noraezean.		

BESTE ARRISKU BATZUK

Portuko eguneroko jardueran eragina izan dezaketen beste arrisku batzuk honako hauek dira:

KOKAPENA	ARRISKUA
Portuko instalazioak	Tentsio elektrikoaren moztea.
	Ur horniketaren moztea.
	Portuko instalazio eta eraikinetako egiturazko akatsen ondoriozko gertakariak.



3.2.3. ARRISKUEN ANALISIA ETA EBALUAZIOA

Portuko arriskuak aztertzeko, honako metodo hau erabiltzen da arriskuaren magnitudea aurkitzeko, hiru aldagai elkartuz:

1. Esposizioaren maiztasuna.
2. Ondorioak.
3. Aukera.

Ondoren hiru aldagaiak azaltzen dira:

ESPOSIZIO MAIZTASUNA (E)

ESPOSIZIO MAIZTASUNA (E)		
JARRAITUA	Behin baino gehiagotan agertzen da.	10
OHIKOA	Oso litekeena da egoera hori portuan agertzea.	6
NOIZBEHINKAKOA	Ez da harritzekoa egoera hori portuan agertzea.	3
URRIA	Ez da oso ohikoa, baina egoera portuan ager daiteke.	2
ARRAROA	Egoera hori urte askotan behin agertzen da.	1
URRUNA	Oso zaila da egoera hau gertatzea, baina gerta liteke.	0,5

ONDORIOAK (O)

ONDORIOAK (O)		
HONDAMENDIA	Heriotza asko edo 900.000 euroko galera	100
HAINBAT HILDAKO	Hainbat heriotza edo 450.000 eta 900.000 euro arteko galera	50
HILDAKO BAT	Heriotza bakarra edo 90.000 eta 450.000 euro arteko galera	25
LESIO LARRIA	Lesio garrantzitsuak edo 9.000 eta 90.000 euro arteko galera	15
LESIO ARINA	Aldi baterako lesioa edo 900 eta 9.000 euro arteko galera	5
KALTE TXIKIAK	Lehen laguntza edo 900 eurorainoko galerak.	1



AUKERA (A)

AUKERA (A)		
AUKERA HANDIA	Emaitzarik probableena eta esperotakoena da, arrisku-egoera agertzen bada.	10
GERTA DAITEKE	Erabat posiblea da, eta ez da harrizkeoa % 50eko probabilitatearekin gertatzea.	6
ARRAROA BAINA POSIBLEA	Sekuentzia edo kointzidentzia arraroa litzateke. Ez da normala hori gertatzea. % 10eko probabilitatea.	3
EZ OSO OHIKOAK	Oso arraroa izango litzateke hori gertatzea. Jakina da inoiz gertatu dela nonbait. % 1eko probabilitatea.	1
BURURAGARRIA BAINA GERTAGAITZA	Ez da gertatu, baina gertatzea posiblea da.	0,5
IA EZINEZKOA	Hura gertatzea ia ezinezkoa da.	0,1

Arriskuaren (At-en) tamaina aipatutako hiru aldagaiak biderkatuz kalkulatu litzateke:

$$At = E \times O \times A$$

At zehazteak aukera ematen du arriskuak onargarriak diren edo, aitzitik, ekintza zuzentzaileak hartu behar diren zehazteko, eta honako irizpide honen arabera ezarriko da haien denboralizazioa:

EMAITZEN INTERPRETAZIOA		
ARRISKUAREN TAMAINA	ARRISKU MAILAREN SAILKATZEA	NEURRIAK - EKINTZA
400 baino gehiago	OSO ALTUA	Berehalako interbentzioa arriskua murrizteko
200 eta 400 artean	ALTUA	Epe motzean neurri zuzentzaileak behar ditu.
70 eta 200 artean	ERTAINA	Epe ertainerako prebentzio-neurri/zuzentzaileak behar ditu.
20 eta 70 artean	BAXUA	Arrisku onargarria epe luzerako prebentzio-neurriak hartuta.
20 baino gutxiago	ONARGARRIA	Onargarria egungo egoeran



JATORRIA	ARRISKU FOKUA	ARRISKUA	E	O	A	Tamaina	Sailkapena
KANPOKOA	Naturalak	Uholde-euriak	2	5	3	30	BAXUA
		Mareak	3	15	3	135	ERTAINA
		Ekaitz/haizetea	3	25	3	225	ALTUA
		Izozteak eta elurteak	2	5	3	30	BAXUA
		Lur-hondoratzeak	1	25	1	25	BAXUA
		Lur jauzi	1	25	1	25	BAXUA
		Lurrikarak	0,5	50	0,1	2,5	ONARGARRIA
	Sozialak	Bonba mehatxua/bidegabe sartza/sabotajea	2	5	3	30	BAXUA
BARNEKOA	Hidrokarburoen biltegitate, manipulatzeko eta garraioa	Sutea / Leherketa	2	50	3	300	ALTUA
		Gasolio-isuria	3	15	6	270	ALTUA
		Airerako gasolio isuria	3	15	3	135	ERTAINA
		Trafico istripua	2	25	3	150	ERTAINA
		Ihesagatik irristaketa edo erorketa	3	1	3	9	ONARGARRIA
	Portuaren berezko jardura (karga eta deskarga, biltegitate, kontaktua, kirol portua, etab.)	Zama erortzea	2	15	6	180	ERTAINA
		Uretara erortzea	2	15	6	180	ERTAINA
		Eraikinetan eta biltegitate sutea	2	25	3	150	ERTAINA
		Substantziekiko kontaktua. Sulfato sodikoa	6	1	3	18	ONARGARRIA
		Substantziekiko kontaktua. Sosa Kaustikoa	6	1	3	18	ONARGARRIA
		Substantziekiko kontaktua. Potasa	6	1	3	18	ONARGARRIA
		Itsasontzietan sutea	2	25	3	150	ERTAINA
		Harrapatzeak	2	15	1	30	BAXUA
	Portuko uretako jardura	Itsasontzien talkak eta hondoratzeak	2	50	1	100	ERTAINA
		Hausturagatik gasolio isuriak	3	15	6	270	ALTUA
		Itsasorako lurretiko isuriak kolektoreetako ihesagatik	3	15	6	270	ALTUA
		Ontzia nora ezean	2	25	1	50	BAXUA



	Beste batzuk	Tentsio elektrikoaren moztea	2	5	3	30	BAXUA
		Ur-horniduraren moztea	2	5	3	30	BAXUA
		Egiturazkoak	2	25	1	50	BAXUA
		Sarbideak	2	5	3	30	BAXUA
		Ingurumenekoa	3	15	1	45	BAXUA

3.3. ERAGINDAKO PERTSONAK.

Portura sartzen diren pertsonak talde hauetan sailka daitezke:

- **Erabiltzaileak.** Zentroan sartzen diren ia pertsona guztiak lehen aipatutako edozein jardueratan (kirola, arrantza eta merkataritza) parte hartzen duten ohiko erabiltzaileak dira.
- **Mantentze zerbitzua.** Instalazioetako mantentze-lanak, garbiketa eta abar egiteko portura sartzen diren langileak.
- **Bisitariak.** Zentroan noizean behin sartzen diren pertsonak.

Bertako eta kanpoko okupatzaileen kopurua aldatu daiteke lan-egutegiaren, herriko jaien, okupazio-dentsitatearen, mantentze-lanen, bisiten eta abarren arabera.

Portuaren eremuaren eta dagozkion jardueren arabera, honako erabiltzaile hauek bereizten dira:

1. Kirol-jarduera **Portu Zaharra** kaian eta buietan ainguratzeko eremuan egiten da, El Martillo Espigoiaren ekialdeko aldearen ondoan, eta honako erabiltzaile hauek ditu:

PORTUA	KIROL ONTZI KOPURUA	
	Buiara lotuneak	Pantalanera lotuneak
Bermeo	35	320

Kontuan izan behar da gune honetan zaindariaren jaija ospatzen dela, erabiltzaileen gorakada nabarmenarekin eta, ondorioz, arrisku-egoeraren igoerarekin. Kasu horretan, ekitaldiaren arduraduna jarduera horren titularra izango da.

2.- Arrantza-jarduera **Artzan** egiten da, eta baxurako arrantza baino ez du. Arrantzaren ezaugarriak honako hauek dira:

PORTUA	ARRANTZONTZI KOPURUA
Bermeo	28



4. AUTOBABES NEURRIEN ETA BALIABIDEEN INBENTARIOA ETA DESKRIPTIONA.

Portuak autobabeserako dituen bitarteko eta baliabideek edozein ezbehar mota prebenitzeko eta/edo haren aurka egiteko balio duten elementu eta sistema material guztiak hartzen dituzte, ahalik eta azkarren neutralizatzeko. **(3.Gehigarria Planoa 10).**

Portu honek, alde batetik fisikoki dauden bitarteko eta baliabide batzuk ditu, eta bestetik, BIDEZAIN mantenu enpresarenak. Bitarteko eta Baliabide guzti horiek **1. Eranskinean** daude.

Jarraian, bitarteko eta baliabide esanguratsuenak deskribatuko ditugu:

4.1. GIZA BALIABIDEAK ETA BALIABIDE MATERIALAK.

4.1.1. PORTUKO BABES BITARTEKO ETA BALIABIDEAK.

a) Kanpo hidrante sarea.

Portuak bi hidrante sare ditu: alde batetik, Matxikorta eta Erroxape kaietan dagoena eta, bestetik, Portu Zaharreko kaian instalatutako sare berria.

Matxikorta eta Erroxape kaietan zehar, itsaslabarretik bi metrora hidrante-sare bat dago, 50 metrotik behin ureztatze-ahoak dituena. Hornidura-sarea ur-zerbitzu publikoaren hornidura-sareko ur gazia eta ur geza da. Ahoen ezaugarriak honako hauek dira:

- Mota: kutxatila.
- Harguneak: 75 mm-koa (Bartzelona errakorea).

Horrez gain, 75 mm-ko 2 hartune dituen hidrante bat dago kutxatilan, Gurutze Gorriaren eraikinaren inguruan.

Portu Zaharreko kaietan berriki instalatu den sareari dagokionez, 3 (hiru) hidrante ditu suhiltzaileek erabiltzeko kutxatilan, 75 mm-ko 2 hartunekoak, eta, gainera, 45 mm-ko ureztatze-ahoak dartsenaren perimetroan zehar.



HIDRANTEEN SAREA			
Kokapena	Mota	Kopurua	Hartuneak
Matxikorta eta Erroxape kaltetan	Kutxatila	1	75 mm-ko hartune bat/50 m-ko
Gurutze Gorriko inguruetan	Kutxatila	1	75 mm-ko bi hartune
Portu Zaharreko kaltetan	Kutxatila	3	75 mm-ko bi hartune

4.1.2. EKP-REN BITARTEKO ETA BALIABIDEAK.

EKP gestionatutako kirol darsenan hurrengo baliabideak daude (3.Gehigarria Planoa 10):

- 14 su-itxalgailu eta 14 salbamendu-uztai, pantalanetan.
- Botikin bat EKP-ren bulegoan.

Eremu teknikoan eta lehorreratze-gurdietan:

Lekua	Kopurua	Mota
Eremu teknikoa	2	BIE
	5	6 kg-ko ABC hauts su-itxalgailuak
	1	50kg-ko ABC hauts-gurdia
	1	Presiozko ur-pistola
Lehorreratze-gurdiak	4	6 kg-ko ABC hauts su-itxalgailuak
	4	Emari-maukak
	4	Presio-maukak



4.1.3. PORTUKO ARRISKU SEKTORE POTENTZIALEN BABES BALIABIDEAK.

Arrisku-sektore potentzialtzat jotzen diren portu-eremuetan, babes-baliabideak honako hauek dira:

REPSOL

Bermeoko portuan REPSOL biltegiratzeko eta banatzeko instalazioak suteak itzaltzeko sistema eta elementu hauek ditu:

Baliabidea	Kantitatea	Mota
Ur monitoreen bidezko su itzaltzea	1	Biltegiratze-deposituetan sartzeko apar-sistema eta 600 litro apardun biltzeko kubeta.
	1	Presio-ponpen ekipoa
	1	Apar-kanoia, 200 litroko 4 apar-depositu dituen.
Xurgatzaileak	2	Baieta xurgatzaileen kutxak, bakoitza 100 unitatekoa
	40 m	40 metro lineal hesi xurgatzaile
Su-itxalgailuak	3	50 kg-ko orga
	3	5 kg-ko CO ₂
	4	9 kg-ko ABC hautsa
Detekzio- eta alarma-instalazioa	1	Suteak detektatzeko eta itzaltzeko sistema: zentrala, detektagailuak, sakagailuak, sirenak eta CO ₂ botilak

MARINOIL OLIOEN BILTEGIA

Bermeoko portuan olioak biltegiratzeko MARINOIL instalazioak suteak itzaltzeko elementu hauek ditu:

SOLAIRUA	KOPURUA	MOTA
Behekoa	1	6 kg-ko ABC hautsa



4.1.4. MANTENTZE-LANETAKO ENPRESAREN BITARTEKOAK ETA BALIABIDEAK.

Portuan mantentze-lanak egiteko BIDEZAIN enpresak jarduten du, eta harremanetarako datuak honako hauek dira (**ikus 1 Gehigarria**):

MANTENIMENDU ENPRESA	
ENPRESA	BIDEZAIN S.L.
HELBIDEA	Calle Bidebarri, 11
UDALERRIA	Getxo (Bizkaia)
POSTA KODEA	48991
TELEFONOA	944 30 75 30
MUGIKORRA (24 o.)	
FAXa	944 30 13 34
e-maila	bidezain@bidezain.com



4.2. SEGURTASUNARI BURUZKO NEURRIAK.

Bermeoko portuan Bermeoko Portua Babesteko Plana ezarrita dago, eta, horrela, ontzien eta portu-instalazioen babesa hobetzeari buruzko nazioarteko araudia edo ISPS kodea betetzen da, Nazioarteko Itsas Erakundeak (NIE) onartutakoa.

Helburua da neurriak hartzea, nazioarteko itsas trafikorako ontziei eta zerbitzu ematen dieten portu-instalazioei aplikatu beharreko araudiaz harago, Europako Erkidegoaren barruan nazioarteko bidaiak egiten dituzten ontzien eta portu-instalazioen babesa indartzeko, bereziki bidaiari-ontzien kasuan, kaltetuak izan daitezkeen giza bizitzaren kopurua dela eta.

Kodearen helburuak lortzeko, hainbat preskripzio funtzional sartzen dira Kodean; besteak beste, honako hauek, zerrenda zehatza izan gabe:

- Itsas babesaren mehatxuei buruzko informazioa biltzea eta ebaluatzea, eta informazio hori gobernu kontratugile interesdunekin trukatzeko;
- Itsasontzietarako eta portuko instalazioetarako komunikazio-protokoloak eusteko eskatzea;
- Itsasontzietara eta portu-instalazioetara eta haien eremu mugatueta baimenik gabe sartzea saihestea;
- Itsasontzietan eta portu-instalazioetan baimendu gabeko armak, artefaktu su-emaileak edo lehergailuak sartzea saihestea;
- Itsas babeserako mehatxu bat edo babes horri eragiten dion gertaera bat gertatzen denean alarma emateko bitartekoak ematea;
- Babes-planak eskatzea itsasontziarentzat eta portu-instalazioentzat, babesaren ebaluazioetan oinarrituta;
- Prestakuntza, ariketak eta praktikak eskatzea, langileek babes-planak eta -prozedurak ezagutzen dituztela bermatzeko.



5. PORTUKO INSTALAZIOAK MANTENTZEKO PROGRAMA.

Portuak, baliabideei dagokienez, emakida, baimen eta zerbitzua ematen duten enpresei legez dagokienari eta aplikatzen dienari kalterik egin gabe, baliabide teknikoak izan behar ditu larrialdiei aurre egiteko, bere eskumenen esparruan.

Hori dela eta, eskura dauden bitarteko eta baliabideek aldian behin mantentze-lanak egin behar dituzte egoera egiaztatzeko, batez ere erabili ohi ez direnak.

Hala, portuak mantentze-lanen programa bat izango du, eta programa horren bidez, bitartekoak eta baliabideak aldian-aldian egiaztatzen ditu; horrek esan nahi du baliabide horiek egoera onean daudela eta inbentarioa eguneratuta edukitzea ahalbidetzen duela.

Horretarako, Segurtasun-Liburu bat izango du. Liburu horretan, portuan instalatutako segurtasun-sistemen eta -ekipoen inbentarioaz gain, altak eta bajak dokumentatuko dira, eta bertan jasoko dira bertan egindako berrikuspen-, aldaketa- eta mantentze-eragiketa guztiak. Larrialdiko arduraduna arduratuko da liburua etengabe eguneratuta dagoela ziurtatzeaz.

Portuko instalazioen mantentze-lanetarako liburu bat ere izango da, larrialdietan jarduteko planari dagokionez; zehazki, uraren, elektrizitatearen, gasaren, telefoniaren eta bideozaintzaren instalazioei dagokienez.

Egindako mantentze-lan guztiak dagokion erregistroan jasoko dira.

Aplikatu beharreko legediak eta araudiak, nagusiki, honako hauek dira:

- Urtarrilaren 20ko 145/1989 Errege Dekretua, portuetan salgai arriskutsuak onartu, manipulatu eta biltegiratzeko Erregelamendu Nazionala onartzen duena (EAO, 37. zk., 1989ko otsailaren 13koa). Erregelamenduak 21. eta 132. artikuluetan ezartzen ditu portuko instalazioek Suteen Aurka Babesteko bete behar dituzten baldintza orokorrak..
- Eraikuntzari buruzko Oinarrizko Araua (NBE - CPI - 96), araua aplikagarri zaien erabileretarako portuan dauden eraikinetarako (administrazio-erabilera, garaje- edo aparkaleku-erabilera, merkataritza-erabilera, etab.).



5.1. ARRISKU-INSTALAZIOEN MANTENTZE-LANAK.

Portuko instalazio orokorretako aparatuak, ekipoak, sistemak eta osagaiak aldian-aldian berrikusiko ditu kudeaketa-sistemaren arduradunak.

Portu Agintaritzak ez ditu kudeatzen identifikatutako arrisku-instalazio nagusiak, eta mantentze-lanak zerbitzua ematen duten enpresa emakidadunek edo baimenduek egin behar dituzte.

Mantentze-lanak egiteko, esku-hartzeak edo osagai edo pieza batzuen aldaketak ikuskatu eta programatu behar dira, aurrez zehaztutako denbora-tarteen edo espazio erregularren arabera. Makina baten matxura edo errendimendua galtzeko probabilitatea murriztea da helburua, eta esku hartutako elementuaren bizitza baliagarrira ahalik eta gehien egokitzen diren esku-hartzeak planifikatzen saiatzea.

Portu eta Itsas Gaietako Zuzendaritzak erregistro bat izango du portuko bulegoan egindako mantentze-lanen eta segurtasun-ikuskapenen inguruan, indarrean dauden instalazioen erregelamenduetako araudiarekin bat etorritz.

Era berean, sutearen edo larrialdi tekniko baten ondoren, instalazioak berrikusi beharko dira, eta txosten bat egin beharko da, kalteak eta horien tamaina islatzeko.



Hauek dira, besteak beste, mantentze-lanak izan beharko lituzketen arrisku-instalazio nagusiak:

Arrisku instalazioa	Arduraduna	Mantentze-lanen maiztasuna
Hornikuntza sarea.	Bilbao-Bizkaia Ur Patzuergoa	Barne-protokoloaren arabera
Sare elektrikoa eta transformazio-zentroak.	Iberdrola Distribución Eléctrica	Barne-protokoloaren eta indarreko araudiaren arabera (Behe Tentsioko Instalazioen Erregelamendua).
Gas-sarea.	--	Barne-protokoloaren eta indarreko araudiaren arabera.
Saneamendu-sarea.	Bermeoko Udala. Bilbao-Bizkaia Ur Partzuergoa	Barne-protokoloaren arabera.
Komunikazio-sarea.	Telefónica de España, S.A.U.	Barne-protokoloaren arabera.
Deposituak, hornigailuak eta hidrokarburo-sareak.	Repsol Comercial eta Marinoil	Barne-protokoloaren eta indarreko araudiaren arabera.
Urpeko hustubide	Bilbao-Bizkaia Ur Patzuergoa	Barne-protokoloaren arabera.

Ezarpen-fasean, arrisku-instalazioen enpresa arduradunak, hornitzaileak edo emakidadunak identifikatuko dira, eta haien mantentze-protokoloak eskatuko dira.



5.2. BABES-BITARTEKOAK MANTENTZEA.

Suteen aurka babesteko instalazioek, bai eta halakoak sor ditzaketenek ere (instalazio orokorrak), indarrean dagoen legerian ezarritako Mantentze eta Erabilera Baldintza Orokorrak bete beharko dituzte, baita Eraikuntzaren Oinarrizko Araua eta ekipoen fabrikatzaileak eta/edo instalatzaileak adierazitako mantentze-baldintza bereziak ere.

Suteen aurka babesteko instalazioek berariazko mantentze-lanak dituzte, eta suteen aurka babesteko instalazioen araudia onartzen duen azaroaren 5eko 1942/1993 Errege Dekretuak arautzen du, eta 1994ko martxoaren 14an jarri zen indarrean.

Bertan, ekipoen edo sistemaren instalazioaren titularraren langileek egin beharreko prebentziozko eragiketak eta ikuskapenak ezartzen dira.

Zerrenda horretan, Erregelamendu horren arabera suteen aurka babesteko instalazioei egin behar zaizkien eragiketak sartzen dira, bai eta Erregelamendu horretan jasota ez dauden segurtasun-instalazioak ere.

Portuan dauden norbera babesteko ekipamenduen mantentze-lanei dagokienez, fabrikatzaileak ekipoen jarraibideen eskuliburuan ezarritako irizpideen arabera egingo da.



5.3. SEGURTASUNeko IKUSKAPENA EGITEA ETA BABES-BITARTEKOAK MANTENTZEA.

EKIPOA EDO SISTEMA	OPERAZIOA	MAIZTASUNA
SUTEAK DETEKTATZEKO ETA ALARMA JOTZEKO SISTEMA AUTOMATIKOAK	Instalazioen funtzionamendua egiaztatzea (hornidura-iturri bakoitzarekin). Gaizki dauden pilotuak, fusibleak eta abar ordeztea. Metagailuak mantentzea (borneak garbitzea, ur destilatua berritzea, etab.).	HIRU HILABETE
	Instalazioaren egiaztapen integrala. Zentralen eta osagarrien ekipoa garbitzea. Lotura hariztatuak edo soldatuak egiaztatzea. Erreleak garbitzea eta doitzea. Tentsioak eta intentsitateak erregulatzea. Alarma transmititzeko ekipoa egiaztatzea. Instalazioaren azken proba hornidura elektrikoko iturri bakoitzarekin.	URTEA
SUTEEN ALARMAREN ESKUZKO SISTEMA.	Instalazioaren funtzionamendua egiaztatzea (hornidura-iturri bakoitzarekin). Metagailuak mantentzea (borneak garbitzea, ur destilatua berritzea, etab.).	HIRU HILABETE
	Instalazioaren egiaztapen integrala Osagaiak garbitzea. Lotura hariztatuak edo soldatuak egiaztatzea. Instalazioaren azken proba hornidura elektrikoko iturri bakoitzarekin.	URTEA
SU-ITZALGAILUAK	Irisgarritasuna, itxurazko kontserbazio-egoera ona, aseguruak, zigiluak, inskripzioak, mahuka eta abar begiratzea. Su-itxalgailuaren eta gas bultzatzailearen botilatxoaren karga-egoera (pisua eta presioa), zati mekanikoen egoera (ahokoa, balbulak, mahuka, etab.) begiratzea.	HIRU HILABETE
	Pisua eta presioa egiaztatzea, hala badagokio. Bultzatze-gasezko botilatxoak duten hautsezko su-itxalgailuen kasuan, su-itxalgailuaren egoera ona eta botilatxoaren pisua eta kanpoko itxura egiaztatuko dira. Mahukaren, ahoaren edo lantzaren, balbulen eta zati mekanikoen egoera begi-ikuskatzea.	URTEA
	Su-itxalgailuaren tinbre-datatik aurrera (eta hiru aldiz), su-itxalgailuen gaineko presiozko aparatuen Erregelamenduko ITC - MIE AP.5 jarraibidearekin bat etorritik, su-itxalgailua birzigitatu egingo da.	BOST URTE
	Birkarga	DESKARGA OSTEAN



EKIPOA EDO SISTEMA	OPERAZIOA	MAIZTASUNA
Sute-Aho (S.A.E.) Ekipatua	Ekipoen irisgarritasun eta seinaleztapen ona egiaztatzea. Osagai guztiak ikuskatuz egiaztatzea, mahuka osorik desbiribilkatuz eta pitari eraginez, posizio bat baino gehiagokoa bada. Zerbitzu-presioa egiaztatzea, manometroa irakurrita. Armairuko ateetako itxiturak eta bisagrak garbitzea eta koipeztatzea.	HIRU HILABETE
	Mahuka desmuntatzea, eta hura toki egokian entseatzea. Bokillak posizio desberdinetan eta ixteko sisteman behar bezala funtzionatzen duela egiaztatzea. Errakoreen eta mahukaren estankotasuna eta junturen egoera egiaztatzea. Manometroak adierazitakoa mahukaren konexiorakorean akoplatutako erreferentziazko beste manometro batekin (patroia) alderatzea.	URTEA
	Mahukari 15 kg/cm ² -ko proba-presioa egin behar zaio.	BOST URTE
HIDRANTEAK	Ingururako irisgarritasuna eta lurperatutako hidranteen seinaleztapena egiaztatzea. Ikuskapen bisuala, multzoaren estankotasuna egiaztatuz. Irteeretako tapak kendu, hariak koipeztatu eta errakoreen junturen egoera egiaztatu.	HIRU HILABETE
	Eragiketa-azkoina koipeztatzea edo haren olio-ganbera betetzea. Hidrantea ireki eta itxi, balbula nagusiak eta drainatze-sistemak behar bezala funtzionatzen dutela egiaztatuta.	SEI HILABETE
ITZALTZEKO SISTEMA FINKOAK: -UR-IHINZTAGAILUAK. -IHINZTATUTAKO URA. -HAUTSA. -APARRA. -GAS-AGENTE ITZALTZAILEAK	Agente itzaltzailearen edo ihinzttagailuaren pitak egoera onean daudela eta ondo funtzionatzeko oztoporik ez dutela egiaztatzea. Sistemaren osagaiak egoera onean daudela egiaztatzea, bereziki ihinzttagailuen sistemetako proba-balbula, hauts-sistemak instalatzeko eskuzko aginteak edo gas-itxalgailuak. Hauts, anhidrido karboniko edo hidrokarburo halogenatuko sistemen eta, halakorik dagoenean, gas bultzatzailearen botilen instalazioaren karga-egoera egiaztatzea. Kontrol-indikazioak dituzten sistemetan, seinaleztapen-zirkuituak, pilotuak eta abar egiaztatzea. Osagai guztien garbiketa orokorra.	HIRU HILABETE
	Egiaztapen integrala, fabrikatzailearen edo instalatzailearen jarraibideen arabera, betiere honako hauek barne hartuta: Sistemaren osagaiak egiaztatzea, batez ere tiro- eta alarma-gailuak. Agente itzaltzailearen karga eta horren adierazlea egiaztatzea (pisuaren edo presioaren neurtze alternatiboa). Agente itzaltzailearen egoera egiaztatzea. Instalazioaren proba jasotzean.	URTEA



EKIPOA EDO SISTEMA	OPERAZIOA	MAIZTASUNA
UR-HORNIDURA	Elementu, biltegi, balbula, aginte, motoponpa alarma, osagarri, seinale eta abar guztiak ikuskatu. Instalazioaren funtzionamendu automatikoa eta eskuzkoa egiaztatzea, fabrikatzailearen edo instalatzailearen jarraibideen arabera. Metagailuak mantentzea, borneak garbitzea (ur destilatua aldatzea, etab.). Mailak egiaztatzea (erregaia, ura, olio, etab.). Elementuetarako irisgarritasuna egiaztatzea, garbiketa orokorra, ponpa-gelen aireztapena, etab.	HIRU HILABETE
	Balbulei eragitea eta koipeztatzea. Prentsa-estopak egiaztatzea eta doitzea. Motorren abiadura hainbat kargarekin egiaztatzea. Elikadura elektrikoa, lineak eta babesak egiaztatzea.	SEI HILABETE
	Motorren eta ponpen urteko mantentze-lanen gama, fabrikatzailearen jarraibideen arabera. Iragazkiak eta zikinkeria atxikitze elementuak garbitzea ura elikatzean. Bateriak eta elektrolitoa kargatzeko proba, fabrikatzailearen jarraibideen arabera. Ur-iturri eta energia-iturri bakoitzarekin hornidura-kurbak eginez probatzea, jasotzeko baldintzetan.	URTEA
LARRIALDIETAKO ARGIAK	Kanpoko begi-berrikuspena.	HIRU HILABETE
	Instalazio osoaren egiaztapen integrala.	URTEA
SEINALEZTAPENA	Berrikuspen orokorra.	HIRU HILABETE
KEAREN TENPERATURAREN KONTROLA ETA	Aireztagailu eta exutorio guztiak eta, hala badagokio, erauzketa edo bulkada behartuko ekipoak automatikoki ireki direla egiaztatzea.	HIRU HILABETE
	Ke-pantaila edo -hesi mugikor guztiek behar bezala funtzionatzen dutela egiaztatzea, bai eta finkoen egoera eta kokapena ere.	SEI HILABETE
	Instalazio osoaren egiaztapen integrala.	URTEA
BIGARREN MAILAKO EDO LARRIALDIKO ELIKADURA ELEKTRIKOA	Fabrikatzailearen jarraibide teknikoetan agertzen diren berrikuspenak, eta gutxienez 15 minutuz martxan jartzea.	HIRU HILABETE
ARNASKETA AUTONOMOKO EKIPOA	Ikuskapen bisuala Karga-egoera Funtzionamendua egiaztatzea.	HILABETEA
	Botilak kargatzea.	URTEA
ATEAK BLOKEATZEA ETA ATXIKITZEA	Fabrikatzailearen jarraibide teknikoetan dauden berrikuspenak.	HIRU HILABETE
	Instalazio osoaren egiaztatze integrala.	URTEA



EKIPOA EDO SISTEMA	OPERAZIOA	MAIZTASUNA
IRRATI-TRANSMISOREAK	Ikuskapen bisuala Baterien funtzionamendua eta karga-egoera egiaztatzea Bateriak deskargatzea.	HILABETEA
TELEFONO MUGIKORRAK	Funtzionamendu-proba Bateria ordeztea.	URTEA
MEGAFONIA	Soinu-proba	EGUNERO
	Mantentze-lanetako teknikariak berrikustea.	HIRU HILABETE
PRESIOPEKO GAILUAK	Araudi aplikagarrian ezarritakoak.	ARAUDIAREN ARABERA
IGOGAILUAK	Suhiltzaileen maniobraren funtzionamendua egiaztatzea.	HILABETERO



6. LARRIALDIETAN JARDUTEKO PLANA

Kapitulua honetan larrialdi-egoera definitzen duten arrisku-faktore garrantzitsuenak aipatzen dira, larrialdi-egoera kontrolatzeko hainbat ekintza behar izan ditzaketenak, larritasuna eta giza baliabideen eskuragarritasuna kontuan hartuta.

Larrialdi-egoerak larritasunaren arabera sailkatzen dira, kontrolatzeko zailtasunen eta izan ditzaketen ondorioen arabera, baita giza baliabideen erabilgarritasunaren arabera ere.

Beraz, larrialdiak identifikatu eta sailkatzeko, honako alderdi hauek hartu dira kontuan:

- Arrisku mota.
- Larritasuna.
- Alertak eta giza baliabideak.
- Kontrolatzeko dauden zailtasunak.
- Izan ditzakeen ondorioak.

Identifikatutako larrialdi-egoerak honela sailka daitezke:

- Larrialdi-hasierra. Portuko, saileko edo eremuko langileek eta baliabideek erraz eta azkar kontrolatu eta menderatu dezaketen istripua da.
- Larrialdi partziala. Menderatua izateko eremuko larrialdietako talde berezien jarduna eskatzen duen istripua da. Larrialdi partzialaren ondorioak eremu bati mugatuta geratuko dira, eta ez diete eragingo ondoko eremuei, ezta hirugarrenei ere.
- Larrialdi orokorra. Portuko babes-ekipo eta -bitarteko guztien jarduera eta kanpoko sorospen- eta salbamendu-bitartekoen laguntza behar duen istripua da. Larrialdi orokorrak eremu jakin batzuetako pertsonak ebakutzeari ekarriko du.



6.1. LARRIALDIAK IDENTIFIKATZEA ETA SAILKATZEA.

Larrialdia da pertsoneri eta/edo ondasun materialei kalteak eragin diezazkiekeen bat-bateko, ezohiko eta nahi gabeko egoera oro, berehalako eta lehenasunezko ekintza zuzentzailea behar duena. Portu honi dagokionez, hurrengo larrialdi egoerak identifikatu dira:

LARRIALDIA/ARRISKU MOTA	ZENBAKIA
Uholde-auriak	1
Mareak	2
Ekaitza/haizetea	3
Izozteak eta elurteak	4
Lurra hondoratzea	5
Luizia	6
Lurrikara	7
Bonba mehatxua / intrusioa / sabotajea	8
Sutea lehorrean	9
Gasolio/Hidrokarburo-sutea	10
Gasolio/Hidrokarburo isuria	11
Airerako gasolio ihesa	12
Trafico istripua	13
Irristatzea edo erortzea ihesaren ondorioz	14
Karga erortzea	15
Uretara erortzea	16
Eraikinek eta biltegiak su hartzea	17
Substantziekiko kontaktua. Sodio sulfatoa	18
Substantziekiko kontaktua. Soda kaustikoa	19
Substantziekiko kontaktua. Potasa	20
Itsasontzien sutea	21
Harrapatzeak	22
Itsasontzien talkak eta hondoratzeak	23
Hauturak eragindako fuel-olioaren ihesak	24
Kolektoreetan lehorretik itsasorako isurtzea edo ihes egitea	25
Noraezean dabilen itsasontzia	26
Tentsio elektrikoaren mozketa	27
Ur-horniduraren mozketa	28
Egiturazkoak	29
Sarbideak	30
Ingurumenekoa	31

6.2. LARRIALDIETAN JARDUTEKO PROZEDURA (ERAGINKORTASUNA).

Gertakarien edo istripuen garapenean, eraginkortasunarekin lotutako bi fase bereizten dira:

- **Alerta.** Hartzailea arreta- eta zaintza-egoeran jartzera bideratutako ekintza, egoera hori eragiten duten inguruabarrei buruzkoa, eta esku-hartze azkar baterako erantzun-denborak murrizteko helburua duten prestaketa-lanak inplizituki eramaten dituen, informazio berriak jasotzeari adi eutsiz.
- **Larrialdietarako alarma.** Arriskutik edo mehatxatzen duen gertaeratik babesteko neurriak berehala hartzea bultzatzea helburu duen ekintza.

Portuko jarduera-maila aurrealerta edo alerta-egoera batekin bat etorriko da normalean. Hau da, bilakaera txarraren ondorioz, larrialdi-egoera sor dezaketen egoerak, kanpoko baliabideak behar dituztenak.


Larrialdiak, normalean, kalterik gabekoak edo kalte mugatuak dituztenak izango dira, eta horien kontrolean nahikoa dira portuaren baliabideak.

Bi egoera horietan, portuak arrisku-egoeren edo larrialdi-egoeren aurrean erantzuteko mekanismoa osatzen duten jarduketa-prozedurak ditu, intzidentearen eremuaren eta larritasunaren arabera bitartekoak eta baliabideak mobilizatzeko hartu beharreko neurriak eta irizpideak jasoz.

Barne Larrialdietarako Planaren eraginkortasuna honako urrats hauen arabera egituratzen da:

- Arriskua edo larrialdia detektatzea eta alarma transmititzea.
- Aurrealerta eta alerta egoera.
- Larrialdi egoera.
- Larrialdiaren amaiera.
- Eraginkortsuna emakidetan.

Identifikatutako larrialdi-mota bakoitzerako, esku-hartze fitxak egin dira, jarduketa orokorren eta zehatzen neurriak jasotzen dituztenak (**2 Gehigarria**).



6.2.A. DETEKZIOA ETA ALERTA

Arriskuko edo larrialdiko egoerak pertsona anonimoez, enpresek, emakidek, erakunde ofizialek eta abarrek detekta ditzakete. Oro har, edozein agentek detekta ditzake.

Egoera edozein dela ere, lehen komunikazioa SOS DEIAKekin izango da, eta hark kudeatuko du larrialdia, tartean dauden agenteei abisua emanaz.

Gertakaria portuaren eremuan gertatzen bada, larrialdia detektatzen duen pertsonak abisua eman beharko lieke horren arduradunei, jarduera-protokoloa abian jartzeko.

Portuko arduradunekin konektatu ezin badute, SOS DEIAKen larrialdiak koordinatzeko zentrotik iritsiko zaie informazioa, inplikaturako agente gisa.

6.2.B. ALARMA MEKANISMOAK

AURREALERTA EGOERA

Barne Larrialdietarako Planaren zuzendariak alerta aurreko egoera aktibatuko du, larrialdia eragin dezakeen egoeraren bat dagoenean.

Hori gertatzen denean, Planaren zuzendaria eta Larrialdietako arduraduna bilduko dira, intzidenteak izan dezakeen bilakaera eta eragina jasan dezaketen elementuak aztertzeko.

Aurretiazko urrats gisa, jarduketa-taldeek behar dituzten baliabideak eta ekipoak mobilizatuko dira, prebentzio-neurriak hartzea areagotuz.

Azterketa horren ondoren, garrantzi handiagorik ez duela uste badute, Planaren zuzendariak larrialdiaren amaiera aginduko du.

Bestela, alerta-egoera aktibatuko du dagozkion jarduketa eta komunikazioekin, eta SOS DEIAKi jakinaraziko dio telefono-dei baten bidez.



ALERTA EGOERA

Planaren zuzendariak alerta-egoera dekretatuko du kalterik gabeko gertakarien edo berezko baliabideekin kontrola daitezkeen kalte mugatuen aurrean.

Larrialdi-arduradunak egoera horren berri eman behar dio SOS DEIAKen operazio-zentroari, telefono-dei baten bidez, gertatzen ari denaren berri izan dezaten.

Ondoren, honako ekintza hauek egingo dira:

- Egoera eragin duen arriskuari edo gertakariari dagokionez beharrezkoak diren prebentzio-ekintzak abian jartzea.
- Dagokion jarduketa-taldeak kaltetutako eremua bisitatuko du, haren egoera kontrolatzeko eta egiaztatzeko, eta informazioa Larrialdietako arduradunari helaraziko dio.
- Erabiltzaileei egoeraren berri ematea, zer egin behar duten adieraziz.
- Larrialdietako arduradunak ekintza horietatik jasotako informazioa aztertuko du.

Egoera kontrolatzekotan, Planaren zuzendariak larrialdi-amaiera aginduko du, eta horren berri emango die tartean diren agente guztiei, larrialdi-arduradunaren bitartez.

Portuko baliabideek ezin badute egoera kontrolatu eta pertsoneri edota ondasun materialei kalteak egin badiezazkiekete, Planaren zuzendariak larrialdi-egoera deklaratu du formalki, eta SOS DEIAKi kanpoko baliabideen laguntza eskatuko dio, larrialdietako arduradunaren bidez, telefonoz deituta.

6.2.C. LARRIALDIARI AURRE EGITEKO MEKANISMOAK ETA LEHEN SOROSPENAK

Larrialdi-egoera bat detektatu ondoren, larrialdi-arduradunari dagokio horri aurre egiteko neurri hauek hartzea, eta agindu orokorrak edo bereziak eman ahal izango ditu premia larria dela-eta:

- Agertokiaren azterketa, intzidentearen bilakaera posiblea eta eragina izan dezaketen elementu kalteberak aztertuz.
- Erabili beharreko baliabide propioak zehaztea eta, ondoren, mobilizatzea.
- SOS DEIAKi jakinaraztea kanpoko laguntzaren beharra.
- Prebentzio-, esku-hartze- eta babes-neurriak hartzea areagotuko da.
- Portuko erabiltzaileei abisua ematea, ebakutzeko edo isolamendu posible baten berri emateko.
- Larrialdiaren ondorioak ebaluatzea.
- SOS DEIAKekin komunikatzea egoeraren berri emateko.
- Erakunde ofizialek ezbeharraren bilakaerari buruzko informazio gehiagoren zain egotea.

Bereziki, berehala jakinarazi behar zaio S.O.S.-Deiak-i honako hauen aurreikuspena edo egiaztapena: erantzuteko gaitasun nahikorik ez izatea, eskura ez dauden baliabideak behar izatea edo haien eragin-eremutik haragoko irismena izatea.

LARRIALDIAREN AMAIERA

Behin Barne Larrialdietarako Plana aktibatzea eragin zuten arrazoiak desagertuta, edo arriskuak nabarmen murriztuta, Planaren zuzendariak larrialdiaren amaieraren adierazpen formala egingo die larrialdian inplikaturako agente guztiei (erabiltzaileak, jarduketa-taldea, SOS DEIAK, etab.).

Orduan, zerbitzuak birgaitzeko unea izango da, batez ere gutxienekoak, kalteak konpontzekoa eta, azken finean, normaltasuna berreskuratzeko neurriak hartzekoa.

ERAGINKORTASUNA EMAKIDETAN

Portuko emakidetako batean alarma bat antzemanaz gero, enpresako larrialdi-arduradunak alarma hori egiaztatu beharko du.

Benetako larrialdi bat dagoela egiaztatuz gero, honako ekintza hauek egingo ditu:

- Deitu SOS DEIAKera (112) larrialdi-egoeraren berri emateko.
- Ahalik eta datu gehien eman, gutxienez honako hauek:
 - Inplikaturako eremua.
 - Istripu mota.
 - Inplikaturako substantziak.
 - Kalteturako pertsonak.
 - Kalte materialak.
 - Hasitako akzioak.
- Portuko Larrialdietako arduradunari deitu, gertatutakoa jakinarazteko eta lehen aipaturako datu guztiak emateko. Horrek erabakiko du Portuaren Barne Larrialdietarako Plana aktibatzea ala ez.
- Ahal bada, enpresaren ebakuazioa edo konfinamendua.

Topagunera joan, eta portuko Larrialdietako arduradunari jakinaraziko dio ebakuazioaren emaitza eta alarmaren arrazoien azterketa.

6.2.D. EBAKUAZIOA EDO KONFINAMENDUA.

Portua larrialdi baten aurrean ebakuatzea da Barne Larrialdietarako Planaren helburu nagusietako bat, eta bi mota bereizten dira:

- **Ebakuazio partziala:** intzidenteak eragindako langileak eta larrialdian lan izendaturik ez duten langileak ebakuatzea.
- **Ebakuazio osoa:** kontrolik gabeko egoera baten aurrean gertatzen dena da, eta kaltetutako eremutik alde egin behar dute langile guztiek, baita esku hartzeko taldeek ere.

Ebakuazio Plana honetan datza:

- Adierazi eremu desberdinetako larrialdi-irteerak.
- Pertsonen eta ibilgailuen pasabideak finkatzea.
- Erasadako eremuan hurbilen dauden babeslekuak esleitzea, funtsezkoak ez diren langileak bertan kontzentratzeko eta esleitutako pertsonaren agindupean jartzeko, pertsonak zenbatzeko.

Portuaren ebakuaziorako hurrengo eremuak bereizi dira:

- **1 Zonaldea (Portu Zaharra).** Portuko kirol-gunea herrigunerantz edo 2. zonalderantz bideratuko da.
- **2 Zonaldea (Artza).** Arrantza-jardueraren eremua herrigunerantz edo 3. zonalderantz ebakua ahal izango da.
- **3 Zonaldea (Kanpoko portua).** Merkataritza-jardueraren eremua sarbide nagusi mugatutik hustu daiteke, edo 2. zonaldera.



1. ZONALDEAREN EBAKUAZIO BIDEAK (KANPOKO ETA BARNEKO DARTSENAK).

1. eremua (kirol-jarduera) ez dago mugatuta, eta, beraz, hainbat sarbide/irteera daude udalerriko herrigunetik.

Beraz, ebakuazio-bide nagusiak honako hauek izango dira:

- Olatu talkan, mailuaren kai-muturrean eta ixteko kaian dauden erabiltzaileak herrigunerantz joango dira, bide posible bakarretik, Karabineroen kaiko elkarguneraino.
- Gertakaria kirol-amarralekuetan, eskuinerantz jo dezakete portuko taberna-gunean sartu aurretik.
- Kofradiako kaiaren amaieran (frontoiaren ondoan) dauden erabiltzaileak elkargunera joango dira Karabineroen kaian barrena. Era berean, 2. zonaldeetik hurbil dagoen parkerantz ere ebakatu dezakete (Lamera parkea).
- Beharrezkoa izanez gero, 1. zonaldea udalerriko hirigune historikoko kaleetatik hustu daiteke, arkupe eta tabernen inguruan.

2.ZONALDEAREN EBAKUAZIO BIDEAK (ARTZA).

2. zonaldea (arrantza-jarduera) ez dago mugatuta, eta, beraz, hainbat sarbide/irteera daude herrigunetik.

Beraz, ebakuazio-bide nagusiak honako hauek dira:

- Izotz-fabrikako kaian dagoen 2. zonaldea 1. zonaldeetik hustuko da, ezarritako protokoloari jarraituz.
- Kofradia Zaharreko kaiaren inguruko ebakuazioa Lamera parkeko elkargunera bideratuko da.
- 2. sarbide-eremua esleitutako edozein elkargunetara (PC2) ebakatu daiteke, larrialdia dagoen lekuren arabera.
- Hegoaldean (hozteko planta, arrain-lonja, etab.) portuko sarreran dagoen elkargunerantz ebakutuko da.
- Ezinezkoa bada, beste bide bat dago ebakuazioa 3. zonaldeara (merkataritza-gunera) bideratzeko.

3. ZONALDEAREN EBAKUAZIO BIDEAK (KANPOKO PORTUA).

3. zonaldea (merkataritza-jarduera) mugatuta dago; beraz, ebakuazioa 3. edo 4. sarbidetik egingo da.

Beraz, ebakuazio-bide nagusiak honako hauek izango dira:

- Langile guztiak Mundakatik 3. sarbidean dagoen (PC3) elkargunera joango dira.
- Ezinezkoa bada, 4. sarbiderako eremua 2. eremurantz hustu ahal izango da, sektore horretarako ezarritako protokoloari jarraituz.3.

ITSASONTZIEN EBAKUAZIO BIDEAK.

Itsas kapitainak erabakiko du, larrialdi-motaren eta/edo larrialdiaren larritasunaren arabera, gertuko ontziak ebakutzera (esku hartzeko eremuaren barruan).

Irizpide hauek bete behar ditu:

- Larritasunaren arabera, sorospen-dei bat egingo du V.H.F. 10-16-74 kanaletik (ITSAS SALBAMENDUKO ZENTRO KOORDINATZAILEA).
- Ahal bada, ebakuazio-alertaren aurreabisu bat egingo du, ahalik eta aurrerapen handienarekin.



ELKARTZE PUNTUA.

Elkargunea da larrialdiren bat gertatuz gero, portuaren barruan dauden pertsonak joango diren lekua.

Portuaren konplexutasuna dela eta, ebakuazio-ibilbideetan hiru ebakuazio-gune bereizi dira, horietan egindako jarduerengatik eta sarbidea mugatua den ala ez bereizita.

Hori dela eta, zenbait elkargune zehaztea erabaki da, eremu bakoitzerako, ebakuazio-bideak murrizteko (**7. Planoa**):

- **1. Zonaldea (Portu Zaharra).** Gune horretako elkargunea (PC1) Karabineroen kaian dago. Puntu hori arazotsua balitz, Lamera parkera eramango litzateke.
- **2. Zonaldea (Artza).** Eremu horretan bi elkargune (PC2) bereizten dira, haien hedadura dela eta.
Herrigunetik hurbilen dagoen zonarako, Lamera Parkean dago; hegoalderako, berriz, sarreran dago, hozteko plantaren ondoan.
- **3. Zonaldea (Merkataritza portua).** Zona horretan elkargunea (PC3) 3. sarbide-kontrolean dago.

Elkarguneek ezaugarri hauek dituzte:

- Seinaleztatu gabe daude, eta etorkizunean konpondu beharko litzateke alderdi hori.
- Larrialdiren bat gertatuz gero, eragindako kolektiboarentzat behar besteko gaitasuna izatea.
- Kolektibo horri kalterik ez egiteko bezain urrun.

Elkargunean, larrialdietako arduraduna arduratuko da ebakuazioa behar bezala amaitu dela egiaztatzeaz, eta LET, BET-etako kideei eta enpresa emakidadun bakoitzeko larrialdi-arduradunei horren alderdi garrantzitsuenak galdetuko dizkie.



6.2.E. LEHENENGO LAGUNTZAK EMATEA.

Lehenengo laguntzak ematea Lehen Esku-Hartzeko Taldeari (LET) dagokio. Larrialdietako arduradunaren zuzendaritzapean koordinatuta jardungo dute ebakuazioa antolatzeke lanetan eta lehen esku-hartzeko lanetan, horretarako eskatzen bazaie.

6.2.F. KANPOKO LAGUNTZAREN JASOTZEKO MODUAK.

Larrialdietako arduradunak, LETarekin eta BETarekin batera, kanpoko laguntzak koordinatu beharko ditu, betiere SOS DEIAK-en bidez, eta laguntza horien jarduna erraztu eta arindu beharko du:

Beraz, Larrialdietako arduradunak honako ekintza hauek egingo ditu:

- Larrialdia edo gertakaria identifikatzea eta deia edo alarma dagokion zerbitzu edo agintaritzari helaraztea.
- Intzidentearen bilakaera eta horrek eragin ditzakeen elementuak aztertzea, eta SOS DEIAKi helaraztea.
- Deiak jasotzea eta dagozkien zerbitzuen aurrean kudeatzea, bai eta kanpoko zerbitzuen koordinazioa eta bateragarritasuna teknikoki babestea ere, eskatzen badira.
- Sarbideak eta elkarguneak oztoporik gabe daudela egiaztatzea, kanpoko zerbitzuak erraz iristeko.
- Adierazi ebakatu beharreko eremuak, behar izanez gero, eta ebakuazioan erabili beharreko bideak eta bitartekoak.
- Larrialdiaren bilakaeraren jarraipena; horretarako, esku-hartzaileen informazioa jasoko dute, bitartekoak eta baliabideak koordinatzen lagunduz.
- SOS Deiaketik, Eusko Jaurlaritzako Larrialdiei Aurregiteko Zuzendaritzako esku hartzeko teknikariaren bidez, operazioan zehar gertatzen diren beharrianak jasotzea.

Planaren zuzendariari eta Larrialdiei Aurregiteko Zuzendaritzari gertaeraren berri ematea etengabe, goragoko eremuko plana aktibatu behar bada ere.



6.3. LARRIALDIETAN JARDUTEKO PROZEDURAK GAUZATUKO DITUZTEN PERTSONEN ETA EKIPOEN IDENTIFIKAZIOA ETA FUNTZIOAK.

Arriskuei aurrea hartzeko eta larrialdi-egoerei aurre egiteko, jarduera-egitura bat zehaztu behar da, inplikaturako eragileak, horien antolamendua eta erantzukizunak argi eta garbi definituko dituen.

Beraz, eskuragarri dauden baliabideak eta bitartekoak behar bezala mobilizatzeko, honako alderdi hauek zehazten dira:


- Barne Larrialdietarako Planaren organigrama funtzionala, esku-hartzaileen arteko mendekotasun-harremanarekin.
- Organigramako kideen funtzioak eta eskumenak.
- Alerta- eta alarma-transmisioko sistemak, informazio publikorako eta kanpo-laguntza eskatzeko, SOS DEIAKen bidez

Jarduera-talde bakoitzak misio espezifiko batzuk ditu esleituta, eta horiek betetzeko dagozkion baliabideak izan beharko ditu.

Talde bakoitzeko arduradunak berari esleitutako baliabideak zuzendu eta antolatu behar ditu, bere eginkizunak betetzeko autonomia eta erantzukizun osoz.

Arduradun horiek Barne Larrialdietarako Planaren zuzendariaren edo, halakorik ezean, Larrialdiaren Arduradunaren mende daude zuzenean, eta gainerako taldeak portuko instalazioetan dagoen Ekintzak Koordinatzeko Zentroaren bidez koordinatzen dira.

Portuan gertatzen diren larrialdietarako organigrama orokorra honako hau da:



Lanaldetik kanpo, portuko instalazioak portuko zaintzak gainbegiratuko ditu, eta aurrez ezarritako jarduera-protokoloa aktibatu beharko dute (kanpoko abisuak eta Larrialdietako arduradunari jakinaraztea).

Jarraian, larrialdietan jarduteko erakundearen barruko figura garrantzitsuenen funtzioak deskribatzen dira.

6.3.1 BARNE LARRIALDIETARAKO PLANAREN ZUZENDARIA.

Portuko Barne Larrialdietarako Planaren zuzendaria Eusko Jaurlaritzan portu autonomikoetan eskumena duen zuzendaria izango da, eta Barne Larrialdietarako Plana abian jartzeaz eta eguneratuta mantentzeaz arduratuko da.

Halaber, Maniobra Funts/Erreserba aurrekontu-partida bat eskatzeko ardura izango du, ekipamendurako, langileen prestakuntzarako eta abarretarako oinarrizko premiei aurre egin ahal izateko.

Ez badago, Portu eta Itsas Gaietako arduradunak hartuko ditu bere gain figura horren erantzukizunak.

FASEA	FUNTZIOAK
NORMALTASUNA	<ul style="list-style-type: none"> • Planaren garapena, ezarpena eta berrikuspena bete dadin bultzatzea. • Identifikatutako arriskuen arabera ezarritako prebentzio-neurri orokorrak zein espezifikoak bete daitezen sustatzea. • Portuko kideen eta erabiltzaileen artean prestakuntza- eta informazio-kanpainak sustatzea. • Planaren eraginkortasunerako beharrezkoak izan daitezkeen aurreikuspen ekonomikoak bultzatzea. • Segurtasunaren arloan eskumena duten erakunde ofizialei portuak ildo horretan egiten dituen lanen berri ematea.
ALERTA (Prebentzioa)	<ul style="list-style-type: none"> • Larrialdietako arduradunak jasotako informazioan oinarrituta aktibatzea BLPa aktibatzea, arrisku batek bilakaera negatiboa izan dezakeelako. • Ekintzak Koordinatzeko Zentro gisa portuko bulegoa ezartzea, SOS Deiakekin komunikatuta.
ALARMA (Larrialdi egoera)	<ul style="list-style-type: none"> • Larrialdiko arduradunaren aldetik gertakariari buruzko informazioa jasotzea eta egoera baloratzea. • Portuko bulegoan BLPa aktibatu dela formalki adieraztea eta Ekintzak Koordinatzeko Zentroa ezartzea, etengabeko komunikazioan, S.O.S Deiakekin. • Planaren helburuak eta misio estrategikoak ezarri. • Larrialdi-arduradunaren aholkularitzarekin, erabiltzaileei jakinarazi beharreko informazioa zehaztea. • Larrialdiaren amaiera agintzea eta/edo eremu handiagoko beste plan batera igarotzeko eskatzea. • Agintari eskudunei larrialdiaren egoeraren berri ematea, gauzatutako ekintzekin batera.

6.3.2 LARRIALDI ARDURADUNA.

Larrialdi-arduraduna Kai-zaintzaileburua da, eta, portuaren barruan larrialdiren bat gertatzen denean, bere gain hartuko du planaren kudeaketa operatiboa, eta egoeraren berri emango die goragoko planen organo eskudunei larrialdiak koordinatzeko zentroyen bidez, eta jarduera-taldeak kudeatuko ditu. Hura ez badago, kai-zaintzaileak hartuko du bere gain larrialdi-arduradunaren figura.

Plan honetan jasotzen ez diren kasuetan, larrialdi-egoerak eragiten badituzte edo eragin baditzakete, Larrialdi-arduradunak ere hartuko du bere gain larrialdi-egoeraren ardura.

FASEA	FUNTZIOAK
NORMALTASUNA	<ul style="list-style-type: none"> • Planaren garapena, ezarpena eta berrikuspena sustatzea eta gainbegiratzea. • Identifikatutako arriskuen arabera ezarritako prebentzio-neurri orokorrak zein espezifikoak betetzen direla gainbegiratzea. • Erabilgarri dauden bitarteko eta baliabideen inbentarioa eta mantentze-lanak egitea. • Planaren eraginkortasunerako beharrezkoak izan daitezkeen aurreikuspen ekonomikoak eta azpiegiturak proposatzea.
ALERTA (Prebentzioa)	<ul style="list-style-type: none"> • Inplikaturako agenteen aldetik egoerari buruzko informazio nahikoa jasotzea, bai barruan, bai kanpoan. • Detektaturako balizko arriskuaren aurrean prebentzio-/jarduera-neurriak bete eta betearaztea. • Larrialdiak Koordinatzeko Zentroari (SOS Deiak) gertaeraren berri ematea, eremu handiagoko planak aktibatu behar badira ere. • Etengabeko informazioa ematea BLParen zuzendariari, eremu handiagoko planak aktibatzea beharrezkoa izango balitz ere.
